

Kultura

‘Spazi...O’ zirku garaikideko ikuskizuna eskainiko dute Endika Salazarrek eta Barbara Govanek, bihar, Durangon > 11



JAIK!

**ZORNOTZA
OTXANDIO**

Ramadana, islamaren zutabe

Ekainaren 18tik ramadanean murgilduta daude musulmanak. Baraualdi horri buruz eta euren erlijioari buruz berba egin dute eurretako batzuek, islama indarkeriagaz lotzen den garaiotan. > 2-3



Udako beroaldiari aurre egin guran, jendetza bildu da igerilekuetan

Herritar askok uda hasierako egunetan izandako tenperatura altuei igerilekuetan egin die aurre. Durangon, ekainaren 29an, esaterako, igerilekuko edukiera bete egin zen. Tabirako igerilekuak 1.668 bainularientzako lekua du. Egun horretan, tenperatutak 40 gradura gerturatu zirenez, bati baino gehiagori egokitu zitzaion itxarotea, igerilekutik baten bat irten arte. Bonuei dago-kenez, Durangaldeko igerilekuetan 19.000 lagunek daukate txartela. > 4



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 • alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Iurreta > 6

Santa Apolonia-Orozketa lotunea eraiki gura dute aurtan

Mallabia > 6

Ume baten faltan, Haurreskola itxeko arriskua dagoela dio udalak

Garai > 9

Ezpata Dantzari Eguna antolatuko dute Gerediagan eta Garain

Abadiño > 9

Independenteek eta jeltzaleek koalizioan gobernatuko dute

Herririk herri

“Gauza txarretatik urruntzen eta onetara hurreratzen irakasten dizun eskola da ramadana”

Durangoko meskitako kideek ramadanaren berri eman dute, eta, azkenaldian, indarkeriagaz lotzen den islamari buruz berba egin dute



Durangoko meskitan izandako berbalan parte hartu duten musulmanak. Ezkeretik bigarrena da Mohamed Amine Nafai, eta laugarrena, Redouane El Bou Hali imana.

DURANGALDEA M. Onaindia Atzeritarren etorreragaz batera, islama gizartean lekua egiten dabil, Durangoko eta Traña-Matienako meskitetan, adibidez. Durangoko Elkarte Kultural Islamikoak Alluitz kalean duen meskitako ateak zabaldu dizkio ANBOTOr, euren erlijioaren berri emateko. Zapatat erantzi, eta alfonbra gainean jesarrita hasi da berbaldia. “Islamaren benetako errealitatea zein den erakutsi nahi dugu”, esan du elkarteko presidentea den Mohamed Amine Nafai. Azken urteetan, islama, batez ere, indarkeriagaz lotuta agertu da komunikabideetan, eta hizlariak ez dute kezka ezkutatzeko. Ramadanaren azalpenetik hasita, islamean murgiltzeko balio izan du berbaldiak.

Ekainaren 18an hasi zen ramadana. Islamaren nahitaezko bost zutabeetako bat da baraualdia, Redouane El Bou Hali imanaren arabera. “Gure sortzai-

learengana [Ala] hurreratzen gara adorazio honegaz, eta garbiago sentitzen gara”. Hilabetez, eguzkia irteten denetik sartu arte, barau egiten dute. Tarte horretan, ez dute jaten, ez dute edaten –urik ere ez–, eta ez dute sexu hartu-emanik edukitzen. Hali: “Txikitatik entrenatzen gara. Izan ere, gurasoei ikusten diegu, eta apurka-apurka probatzen hasten gara. Horregatik, heldua zarenean, ez duzu gauza zailtzat ikusten. Ez da erronka bat.” Hizketaldira batu den senegaldar bat galdategian dabil: “Labea 1.500 gradura egoten da, baina Alari esker aurre egiten diot beroari. Energia bidaltzen dit”. Lanaren arabera, batzuek salbuespenak egiten dituzte. Bestalde, umek eta nagusiek ez dute egin beharrik.

Meskitan erreztatzen

Nafaiaren ustez, ramadana pertsona aberasten duen zerbait da: “Gauza txarretatik urruntzen

eta onetara hurreratzen irakasten dizun eskola da. Amaitzean, hutsune handi bat sentitzen duzu”. Urtean bost errezo egiten dituzte, eta ramadanean bes-

“Gure sortzailearengana hurreratzen gara adorazio honegaz, eta garbiago sentitzen gara”

“Islama indarkeria bultzatzen duen erlijio gisa ikusten dute, baina guztiz kontrakoa da”

te bat gehitzen dute egunaren amaieran. Durangoko meskitan 60 bat lagun batu ohi dira, baina barikuetan bete egiten dela esan du elkarteko presidentek.

Otordu bereziak

Baraualdia hastean eta amaitzean, otordu garrantzitsu bi egiten dituzte, Mahoma profetak egin zuen bezala. Gauekoa berezia izaten da, familia osoa batzen delako etxean. Produktuak ere bereziak izan ohi dira, dieta indartzeko; datilak –kazetariari eman diote bat– hartzen dituzte, esate baterako, eta esnea ere ugari. Dena dela, jatekoa kulturaren arabera desberdina dela dio Nafai.

Eskuzabaltasuna, arau

Ramadanak irauten duen 30 egunetan, eskuzabalak izateko araua daukate, Nafai kontatu duenez: “Profeta oso eskuzabala zen, eta bereziki hilabete honetan. Horregatik, behartsua uler-tu, eta berari laguntzeko sasoia da”. Bere arabera, ramadanean egiten duten akats bakoitza diruz ordaindu behar izaten dute, eta, hilea amaitzean, dirua behartsu bati ematen diote.

Islama vs indarkeria

Islamismo erradikalak eta, batez ere, Estatu Islamikoak eraginda, islama indarkeriagaz lotu da azkenaldian. Halik ez ditu babestu: “Batzuek islaman testuak txarto interpretatu dituzte, eta txarto dabilza. Eta jendeak orokortu egiten du. Baina mundu osoan topatuko dituzu gauza onak egiten dituzten musulmanak”. Gaia zabaldu du Nafai: “Islama indarkeria bultzatzen duen erlijio gisa ikusten dute, baina guztiz kontrakoa da. Koranak dio profetak errukia zabaldu zuela unibertso osoan. Beraz, errukia oinarri duen erlijio bat ezin da pertsonak erailtzeko eta tratatu txarrak emateko erabili; emakumeei ere ez”. Haliren esanetan, emakumek ere badituzte eskubideak, eta ezin zaie minik egin: “Inork ez du boteririk beste bati min egiteko”.

Berbaldia amaitu ostean, ramadanagaz jarraitu dute, eguzkia sartu bitartean.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558


Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko uztailaren 10a,
13. urtea - 597. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



“Profetak, jaiki ostean, ohea egiten zuen; gaur egun gizon batzuek ez”

Emakume musulmanak gizonen menpe bizitzea ez du ondo ikusten Awa Sagnak

DURANGALDEA M.O.

Awa Sagna (Dakar, Senegal, 1981) 2006an etorri zen Elorriora, eta garbiketan egiten du lan. 12 urte hasi zen ramadana probatzen, eta 16 urte hasi zen bete-betean. Emakume musulmanek ramadanagaz eta islamagaz duten lotura kontatu dio musu bi emanda agurtu duen kazetariari.

Zelan daramazu ramadana?

Ondo. Osasunerako oso ona da, eta argaldu ere egiten zara. Udan eta arratsalde zail egiten da, eta sinismena behar duzu ramadana egiteko. Sinistu barik ezingo zenuke egin. Batzuek ramadanetik kanpo ere egiten dute barau, astelehenetan eta eguaztenetan, profetak horrela egin zuelako.

Zer baldintza duzue ramadanean?

Barauaz aparte, ezin dugu sexu hartu-emanik eduki. Biluzik ezin gara ibili, eta hobe da igerilekura ez joatea, gizonak biluzik

badaude, ezin ditugulako ikusi. Gainera, ez dugu beste pertsoneri buruz txarto berba egin behar.

Emakumeek badituzue salbuespenak barau egiteko.

Hilekoagaz edo haurdun bazau, ez duzu egingo. Baina geroago egin beharko duzu, urtean barrena. Umea titia ematen bazaude eta ezin baduzu urtean zehar egin, trukean dirua ateratu beharko duzu behartsuen alde.

Zuk non errezatzen duzu?

Etxean. Berandu errezatzen dut, eta umeak dagoeneko ohean egoten dira. Gurago dut etxean egin, haiek bakarrik utzi beharrean. Horregatik, orokorrean, esaten da emakumeok etxean erreztatzea hobeto dela.

Emakume musulmanok gizonen menpe bizi zaretela dio batetik baino gehiagok.

Ez dizut esango guztiz gezurra denik, baina herrialdearen arabera da. Marokoko herrietan asko igartzen da, adibidez. Nik

neuk etxean ez dut arazo hori, guztia partekatzen dugu. Gizonak esaten duena ez da arau, berba egiten dugu. Senegalen badaude eurek esaten dutena egin behar dela uste duten gizonak, baina ez dago ondo. Berba eginez gero, soluzioa hobe izango da. Profetak, goizean jaiki ostean, ohea egiten zuen; gaur egun, ostera, gizon batzuek ez dute egiten, gizonak direla arrazoituta. Batzuk ez dira andregaz jolasten, eta aurpegira begiratu ere ez diote egiten. Erlijioa ez da horren zaila.

Erlijioak baditu baldintzak...

Erlijioak dio osorik tapatu behar dudala, eta, nire gizona, aita, osaba eta neba izan ezik, ezin dudala gizonik agurtu. Baina nik, pertsonalki, uste dut ez nabilela bekaturik egiten jendea agurtzean.

Zer ematen dizu erlijioak?

Gauza asko. Bakea ematen dit, eta uste dut, lan eginez gero, zerbait ona ekarriko didala bihar.



Awa Sagna, Elorrioren, aurpegia soilik duela bistan.

Aurkitu zure izarra Durangaldean.

15 urte baino gehiago, Durangalde erdi-erdian, geure bezeroei hurrengo zerbitzuak eskaintzen daramagu:

- Ibilgailu berriak, autoak eta furgonetak
- Bigarren eskuko ibilgailuak
- Mekanikan eta karrozerian osoko tailer-zerbitzua, auto, furgoneta eta kamioiak



AGUINAGA TALDEA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es • www.aguinaga.es

Boraa Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47



“Greziar askok politikariekiko haserrea adierazi digute”

Izaro Elorriaga eta Daniel Garcia Greziara joan dira oporretan, eta erreferendumagaz egin dute topo

DURANGALDEA J. Guenetxea Izaro Elorriagak (Abadiño, 1987) eta Daniel Garciak (Córdoba, Espainia, 1985) Grezia aukeratu dute oporretarako lekutzat. Turistak izan arren, Greziak bizi duen une erabakigarriaren lekuko izan dira. Greziarrek ezetz esan diete Bruselatik ezarritako murrizketi. Desobedientzia adierazpen horrek Milos irlan harrapatu zituen, joan zen igandean, Elorriaga eta García.

Oporretan zaudete Grezian. Zelan bizi izan zenuten erreferendumaren eguna? Astebete daramagu bertan. Atenasen egin ditugu egun bi, eta lau irla bisitatu behar ditugu: Signos, Milos, Amorgos eta Naxos. Egun hori Milosen pasatu genuen. Emaizte buruzko berriak begiratu eta begiratu ibili ginen, baina Milosen ez zen ezer apartekorik sumatzen.

Zer giro sumatzen duzue kalean?

Egon garen irletan esan daiteke ez dabilela ezer gertatzen. Atenasen, berriz, erreferendumaren aurreko egunetan mugimendu handia ikusi genuen, batez ere ezetzaren aldekoa: adibidez, manifestazio jendetsu bat, kalean kartel asko eta autoetatik bozgorailuekin zabalduko propaganda. Telebistan ikusi den moduan, guk ere ikusi ditugu jende ilarak kutxazainetatik dirua atera guran. Esaterako, metroan jendea hurbildu zitzaigun ez genezala ordaindu esateko, bankuen blokeoaren aurkako protesta lez.

Supermerkatuetan hornidura falta dagoela entzun dugu komunikabide batzuetan. Horrelakorik ikusi duzue? Produktuak falta dira saltokietan? Ez, momentuz, behintzat, guk ez dugu horrelako egoerarik ikusi.



Daniel García eta Izaro Elorriaga Grezia ezagutzera joan dira.

Turistak zarete. Erreferendumaren eraginez turismoak behera egin duela ere esan dute. Horrelakorik ikusi duzue? Egia esan, guk ez daukagu beste urte batzuetako erreferentziarik, baina ezetz esango nuke. Turista asko ikusten da.

Zerbitzuek normal funtzionatzen dute egon zareten lekuetan?

Bai. Guk erabili behar izan ditugun zerbitzuak –metroa eta autobusa, besteak beste– nor-

maltsun osoz dabilta funtzionatzen. Zentzu horretan, ez dugu arazorik izan.

Ikusminez bizi duzue guztia?

Bai. Egutero irakurtzen ditugu berriak.

Greziarrek zer diote kalean azken urteotan bizi duten egoerari buruz?

Ez dugu jende askorekin honi buruz berba egiteko aukera eduki, baina, adibidez, Atenasen lo egin genuen etxeko emakumeak esan zigun egoe-

ra oso gogorra dela. Soldatak asko jaitsi direla azken bost urteetan, eta prezioak, berriz, ez. Beste pertsona batzuek, oster, orokorrean politikariekiko duten haserrea soilik adierazi digute.

“Erreferendum eguna Milosen pasatu genuen. Han ez zen ezer apartekorik sumatzen”



Durangoko Tabirako igerilekua, martitzenean.

Durangaldeko 19.000 lagunek daukate igerilekuetarako bonua

Durangoko igerilekua guztiz bete zen ekainaren 29an; 1.668 laguneko edukiera du

DURANGALDEA M. Onaindia Igerilekuen sasoia ekainean hasi zen, eta, ordutik hona, asko eta asko dira bainua hartzeko zein lasaitzeko bertara joaten direnak. Askoz gehiago azken aste bietan, beroaldiaren eraginez. Durangaldeko igerilekuak kontuan hartuz gero, guztira, 19.000 lagunek egin dute bonua.

Jendetzaren adibide, Durangoko igerilekua guztiz bete zen ekainaren 29an, eta jendeak ilara egin behar izan zuen barrura sartzeko. 1.668 lagunentzako

edukiera du, eta 7.540 abonatu daude. Elorrion, oster, uztailaren 4a izan zen egun arrakastatsuen, eta 900 lagun bertaratu ziren. Oraindik ez dira heldu 1.150 pertsonako mugara, eta 2.150 lagunek daukate bonua.

Atxondoko instalazioetan, 290 pertsona batu ziren, uztailaren 1ean, eta, orokorrean, udako asistentzia ona izaten dabilela azaldu dute arduradunek. 200 herritarrek atera dute bonua.

Otxandion, 568 bonu egin dituzte, eta sasoia hasi zenetik

beste 400 bat sarrera saldu dituzte guztira.

Estalitako igerilekuak

Estalitako igerilekuetan ere igarri dute gorakada. Abadiñon, 2.200 pertsona dira abonatuak, eta egunik arrakastatsuenak ekainaren 30a eta uztailaren 1a izan ziren. Zornotzan, 5.333 erabiltzaile daude, eta, uztailaren 1ean, 667 lagun elkartu ziren. Berrizen, 1.190 abonatu daude, eta, martitzenean, 186 lagun egon ziren igerilekuan.

hitz

#gomendioak

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT
TEMPO DE EXILIO
Joseba Sarrionandia (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT
ETXEKO SAGUAK
Oli eta Natalia Colombo (2015)

MUSIKA
PLATERUENEAN ZUZENEAN
Katamalo (2014)

uda kalean bizi 2015 uztaila

16 OSTEGUNA 21:30 Velma Powell & Bluedays <i>Step into the Blues</i> MUSIKA Andamariko elizpea euriarekin: Andamariko elizpea	19 IGANDEA 19:00 Cia Barré <i>Eskobien atzetik</i> ZIRKO ANTZERKIA Udaletxe plaza euriarekin: Merkatu plaza	24 OSTIRALA 20:00 Manolo Álcantara <i>Rudo</i> ZIRKO-MUSIKA Musika Eskolako parkea euriarekin: Merkatu plaza
--	--	---



Erosketak inoiz baino azkarrago EROSKIko Click&Drive zerbitzuagaz

EROSKI online zerbitzuan erosketa egin eta handik lau ordura, autotik jaitsi beharrik barik, zure eskaera gasolina zerbitzugunearen ondoan jaso dezakezu

Uztailaren 1etik, Bizkaian dagoen online bidezko erosketa zerbitzurik azkarrena eskaintzen du Abadiñoko EROSKI hipermerkatuak. Internetez erosketak egitea inoiz ez da hain erraza eta dibertigarria izan. Erosketa hamabost minutuan egin dezakezu, gosaltzean edo

lanera bidean, eta lau orduan prestatuko dugu zure erosketa. Abadiñoko EROSKI hipermerkatuko gasolindegia ondoan dagoen Click&Drive zerbitzura joan, eta autotik jaitsi barik jaso dezakezu erositakoa.

Click&Drive da merkatuan dagoen erosteko modurik mal-

guena. Zure eskaerak asteleheneretik zapatara jaso ditzakezu, 09:00etatik 22:00etara. Nagusiagaz duzun batzarra luzatzen bada edo umeak berandu irten badira eskolatik, itxi arte egongo gara zure zain.

Gogoratu online denda 24 orduz eta urteko 365 egunetan

zabalik dagoen EROSKIren denda dela. Horrela, zure erosketak hogeita bat eguneko aurrerapenagaz programatu ditzakezu.

Gainera, 30 eurotik gorako erosketetan zerbitzua doan da. 30 eurotik beherakoentzat 3 euroko gastua izango du. Denborak urrea balio du, eta EROSKI online zerbitzuan inork baino hobeto dakigu hori. Horregatik, Click&Drive zerbitzua Bizkaia guztian zabaltzen gabiltza. Pasatu zaitez Abadiñoko hipermerkatuko gasolin zerbitzugunearen ondoan dagoen Click&Drive salmenta puntutik, eta probatu ezazu zerbitzua.

GILTZAK

- Online egin ezazu erosketa, eta autotik jaitsi gabe jaso.
- Eskaerak egunean bertan jaso.
- Zure eskaera lau orduan prestatzen dugu, 16:00ak baino lehenago eskatuz gero.
- Doan, 30 eurotik gorako erosketetan. Hortik behera, 3 euroko prestaketa gastua.
- Eskaerak jasotzeko ordutegia: 09:00etatik 22:00etara.



“Click&Drive zerbitzu berritzailea da, eta erreferente bihurtuko gaitu”

Iosu Ogiza EROSKIko kudeatzaileak jarri du Click&Drive martxan, Abadiñon

Abadiñoko EROSKI hipermerkatuari zein onura eragingo dio? Onuraduna eroslea izango da, erosketa online egin, eta ilararik zein itxaronaldirik gabe jaso ahalko dituelako erosketak.

Zelan funtzionatzen du?

Oso erraza da. EROSKI online zerbitzuan sartu, Abadiñoko hipermerkatua hautatu entrega egiteko gunetzat, eta erosketa egin ahalko duzu. Erosketa egiten amaitzen duzunean, produktuen bila noiz pasatu gura duzun jarri behar duzu. Hor-

tik aurrera gu arduratzen gara guztiaz. Bezeroak hipermerkatuko gasolin zerbitzugunearen ondoan dagoen batzeko puntutik pasatu behar du. Etxola horretan hozkailuak eta izozkailuak ditugu, produktuak baldintza onenetan mantentzeko. Aukeratutako orduan, bost minutuan eta autotik jaitsi barik, bezeroak erosketak batzen ditu.

Produktu mota duztiak eskatu daitezke? Hau da, arrandegiko eskaera bat egin daiteke?

Jakina baietz. Eta ez hori ba-

karrik. Arraina zelan prestatu gura duzun, eta salda egiteko hezurra eta burua gorde gura dituzun esan diezagukezu. Hipermerkatuko produktu guztiak erosi daitezke: adibidez, freskoak, elikagaiak, garbitasunekoak, edertasunekoak, parafarmaziakoak eta bazarreko hainbat gauza.

Zelan dabil funtzionatzen beste leku batzuetan?

Aurreikuspenak gainditu ditugu. Eredu berritzailea da, eta erreferente bihurtuko gaitu.

click&drive
EROSKI online



¿Bizkaiko online erosketarik azkarrena probatu nahi duzu?

Erosi online eta jaso eskaera autoarekin
Abadiñoko hipermerkatuaren gasolindegian



Santa Apolonia-Orozqueta lotunea eraikitzea ahalbidetuko dute aurrekontuek

Joan zen barikuko udalbatzarrean onartu zituzten 2015eko aurrekontuak



Santa Apoloniarako bidea trena lurperatzen den gunetik egokitu gura dute.

IURRETA Jone Guenetxea
Joan zen barikuan onartu zituzten 2015eko udal aurrekontuak. EAJren aldeko botoekin eta oposizioaren kontrakoekin onartu dituzte aurtengo aurrekontuak. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu zuenez, aurrekontuak onartzeko “premia” zuen udalak, proiektu batzuk martxan ipini ahal izateko. Oposizioak (PSE-EE eta EH Bildu) kontra bozkatu zuen, aurrekontuak au-

rreikusten dituen lanaldien balorazioagaz ez dagoelako ados. 2015eko aurrekontua 5.708.000 eurokoa da, iaz baino ia 500.00 euro gehiagokoa. Inbertsioen atalean, Santa Apoloniaren eta Orozketaren arteko lotunea eraikitzea “lehentasunezko proiektua” dela azpimarratu du alkateak (130.000 euro). Orain Santa Apoloniarako sarbidea Durangotik bakarrik egin daiteke.

Beste inbertsioetako bat Goiuriako ur hornidura proiektua da. Hala ere, “baliteke aurtun denborarik ez izatea proiektua martxan jartzeko”. Bestalde, ikastetxeko leihoak aldatzera 50.000 euro bideratu dituzte, eta pilotalekuko aldagelak atontzeko beste 50.000 euro aurreikusi dituzte. Beste diru-laguntza bi ere onartu dituzte, Hamadako Izarrak eta Amatzorbe elkarteek emango zaizkienak, hain zuzen.

Ume baten faltan, Mallabiko Haurreskola ixteko arriskua dago

MALLABIA M.O.

Haurreskolen araudiak azaltzen duenez, Mallabiko Haurreskola zabalik izateko, beharrezkoa da, gutxienez, hiru umek izena ematea. Bada, udal arduradunek jakinarazi dutenez, momentuz bi umek eman dute izena datorren ikasturtean 0 eta 2 urte bitarteko gelara joateko.

Igor Agirre alkateak esandakoaren arabera, epeak agortu diren arren, egoera honen aurrean, uztailaren 20ra arte eman dute izena emateko aukera, Haurreskolak ateak zabalik izan ditzan datorren ikasturtean. Agirreren berbetan, ez da zertan mallabitarra izan Haurreskolan izena emateko: “Izan liteke inguruko herrietatik industriagunera datozen gurasoek umeak Mallabiko Haurreskolara ekartzeara”. Udal arduradunek herritarrak zein inguruetakoak animatu gura dituzte zerbitzua erabiltzera, datorren ikasturtean Haurreskolak zabalik iraun dezan.

Alkatea lanaldi erdira egongo da, hilean 1.500 euroko soldatagaz

IZURTZA M.O.

Lorea Muñoz (EH Bildu) alkatea lanaldi erdiz liberatuta egongo da Izurtzako alkate karguan. Legeak lanaldi erdiko liberazioa baimentzen du mila biztanletik beherako udalerrietan. Hilean 1.500 euroko eta urtean 21.000 euroko soldata gordina izango du. 2007tik 2011ra alkate izan zeneko baldintza berberak mantentzen dituela adierazi du. Alkatearen soldata joan zen asteko barikuko udalbatzarrean onartu zuten EH Bilduren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen.

Bestalde, asistentziagatik kobratzen diren dietak 159 euroan mantenduko dituzte, baina udalbatzarrerara, komisiotara eta kontratazio mahaira agertzen ez denari ez diote dietarik ordainduko.

Kartel lehiaketa

Bestalde, Izurtzako jaietako kartel lehiaketa Marina Barandika Arauzo durangarrak irabazi du. Kultura Batzordeak gehiengoz hartu du erabakia.

Iñaki Reta atxilotu dute, ETako kide izatea egotzita

ELORRIO M.O.

Iñaki Reta elorriarra atxilotu zuten martitzen gauean, Ortzaizen (Nafarroa Beherea), ETako kide izatea egotzita. Beragaz batera Xabier Goienetxea atxilotu zuten, eta biak egon ziren etxearen jabeak ere bai. Reta eta Goienetxea ETaren “aparatu logistiko-militarragaz” lotu dituzte.

Atxiloketen unean, elkarretaratzea egin zuten Ortzaizen, eta Frantziako polizia euren kontra oldartu zen; hainbat lagun zauritu zituzten polizia, tartean kazetari bat ere bai.

Iñaki Retak hamalau urte egin zituen kartzelan, ETako kide izatea leporatuta. 2008an berriro auziperatu zuten, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontrako auzian. Sententzia jakitean, beste hainbat herritarrekin batera ETan sartu zela adierazi zuen publikoki.

Atxiloketaren unean, elkarretaratzea egin zuten Ortzaizen, eta polizia euren kontra oldartu zen

Zortzi ume saharai etorri dira Elorriora, uda pasatzera

Oporrak Bakean programari esker etorri diren ume saharaiak harrera egin die Idoia Buruaga alkateak

ELORRIO Markel Onaindia
Idoia Buruaga Elorrioko alkateak ongi etorria egin zien, joan zen egunean, ume saharaiak. Oporrak Bakean programari esker eta Lajwad elkarteak bulztatuta, zortzi ume etorri dira Elorriora, uda pasatzera. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuan udan bizi duten beroa saihestea da ekimenaren helburuetako bat. Udaletxean eginiko harrera ofizialean,

umeak eta harrera familia diren elorriarrak egon ziren Buruaga alkateagaz batera.

Aisialdia eta osasuna

Beroa saihesteaz gainera, aisialdiaz gozatzeko eta azterketa medikoak egiteko aukera ere badute ume saharaiak. Eta hori guztia ezinezkoa izango litzateke etxean hartu dituzten Elorrioko familien laguntzarik barik.



Ume saharaiak, harrera familiak eta Idoia Buruaga alkatea.

Eguenean hasiko dituzte Goierri auzoko jaiak

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Uztailaren 16tik 19ra ospatuko dituzte Santa Mariñe jaiak, Goierri auzoan. Eguenean, 20:00etan, Donien Atxa altxatuta hasiko dituzte jaiak, eta, gero, marmitako-janean elkartuko dira. Jaiaren bigarren egunean ere, barikuan, 20:00etan egingo dute eguneko lehenengo ekintza: sardina-jana. Horren ostean, 22:30ean, Goierri Rock jaialdia izango dute. 23:00etan, bola-jokoagaz itxiko dute barrikuko jai egitaraua.

Zapatuan eta domekan, 12:00etako mezen ostean, askotariko ekintzak izango dira egun osoan. Zapatuan, bakailao eta paella txapelketak, eta mus eta briska txapelketak egingo dituzte; gainera, trikitilariak emanaldia eskainiko dute, eta, 17:00etan, umeentzako antzerki emanaldia izango da. 22:30ean. Erromeriagaz eta, 23:00etan, bola-joko txapelketagaz amaituko dute zapatuko egitaraua.

Domeka eguerdian, jaiaren azken egunean, auzoko pertsona nagusiei omenaldia egingo diete, eta, arratsaldean, asto probak eta argazki emanaldia egingo dituzte. Azken traka, ostera, 22:00etan egingo dute.

Bost batzorde izatetik bakarrera igaro da udala


ATXONDO J. Derteano

Udalak bost batzorde zituen aurreko agintaldian, eta hasi berri den honetan bakarra du: legeak behartzen duen Kontu Batzordea. Kultura, ongizate, hirigintza eta ingurumen arlokoak kendu egin dituzte. Erabakia aho batez babestu zuten EH Bilduk eta EAJk joan zen asteko udalbatzarrean.

Batzordeak herri batzar informalengatik ordezkaturiko dituzte. Erabaki horrek udal kudeaketa arindu, partaidetza erraztu, eta udaleko ordezkarien eta herritarren arteko hartu-eman dinamizaturiko duela uste dute. Alderdi politikoetako ordezkariak herritarrekin zein herriko elkarteetako kideekin batzartuko dira, arloz arlo dituzten beharriak zeintzuk diren entzun, eta ekarpenak jasotzeko.

Alkatearen soldata

Udalbatzar berean, alkatearen soldata ere onartu zuten. Dabid Cobos alkatea lanaldi osora egongo da. EH Bilduk soldaten inguruan duen irizpidea ezarriko dio bere buruari, eta 1.700 euro garbi irabaziko ditu hileko.



Iurretako institutuak goi mailako Informatika eta Elektronika zikloak eskaintzen ditu euskaraz

Mantentze-lan elektronikoa eta sare-informatika sistemen administrazioa zikloak eskaintzen ditu

> MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

Oinarrizko elektronika garatzeko, gaur egun eskura ditugun baliabideak (*smartphone*ak, eta software eta hardware libreak, adibidez) erabiltzen ditugu bizitzan aurkitu genitzakeen proiektuak lantzeko.

Esaterako, ikasturte honetan ikasleek Prusa 3D inprimagailuak muntatu dituzte, eta, aurrerantzean, hardware librea erabilita, zenbait prototipo garatuko dituzte; robotak eta komunikazioak, adibidez.

Horrek guztiak aldaketa pedagogiko bat ekarri du: eskola magistralak alde batera utzi, arazoetan oinarrituriko ikasketarantz abiatu, eta ikasleek teknologia berriak erabiltzen dituztelako. Adibidez, Internet darabilte; lanak bideoen bidez aurkeztu, eta Youtubera igotzen dituzte; eta eskoletan hainbat aplikazio erabiltzen dituzte.


Lantokiko prestakuntza gauzatzeko, Durangaldeko eta inguruko enpresa garrantzitsuenekin –Eusko Trenbideak, Smurfit, CMZ, Ona Electroerosioa eta Fagor elektronika, esate baterako– ditugu harremanak. Lan arlora salto egiteko aukera oso zabala da: esaterako, instalazio eta ekipoen mantentze elek-

tromekanikoan, domotikan, eta tresneria elektronikoen muntaietan eta matxuren konponketan egin dezakete behar. Horregatik, ikasleek nahiak eta interesak kontuan hartzen ditugu neurri, handi batean, nahi dituzten praktikak egiteko.

Bestetik, Erasmus programari esker, atzerrian garatu dezakete lantokiko prestakuntza: azken urteetan, Poloniako Wroclaw hirian egin izan dute. Euren curriculumerako oso positiboa da, ingelesa eta harremanak lantzen direlako, gaur egun enpresak duten nazioartekoze beharrari erantzuteko.

Ikasturte honetan, Txandakako Lanbide Heziketa proiektuan parte hartzen gabilta, ikasleak lana eta ikasketak lotu ditzan. Goizez, ikastetxean eta, arratsaldean, lantokian osatzen dute euren formakuntza, eta diru apur bat eskuratzen dute. Gainera, azken urteotan krisialdian egon arren, laneratzeko indizea altua da, eta aurretik lanean ibili ziren gehienek lanpostua mantendu dute. Hori guztia, ahal dugun neurrian, mintegian daukagun lan poltsagaz bultzatzen dugu, ikasleek eta enpresen arteko zubi lana eginez.

“Ikasketak ikuspuntu praktiko batetik programatzen ditugu”



> **SARE-INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA**
Uztailaren 16tik 21era Iurretako institutuan matrikula egiteko aukera eskainiko dute. Informatika eta Elektronika zikloei buruzko argibideak eman ditu Tomas Maguregi zuzendariak.

Zer ikasten da ziklo honetan?

Hiru berbetan esateko, ordenagailu baten barruan, edo, hobeto esanda, ordenagailu multzo baten barruan gertatzen dena zer den. Arazoren bat izan dugunean, nork ez du sekula jaso “Zure sare administratzaileagaz kontsultatu ezazu” mezua? Bada, ziklo honetan administratzaile horren lana zelan egin erakusten dugu.

Baina, hori egiteko, gauza asko ezagutu beharko da...

Bai. Horregatik, nire ustez, benetako informatikazalea bazara, hau da heziketa ziklo apro-

posena. Ziklo honetan, sistemek barrutik zelan funtzionatzen duten ikasten dugu. Kapazak izan behar dugu sistemak martxan ipintzeko, arazoak topatzeko eta konpontzeko, sistema seguruak egiteko eta kanpoko erasoak saihesteko, adibidez. Horretarako, hainbat sistema eragile erabiltzen ikasten dugu; batez ere, Linux eta Windows zerbitzarien sistemak. Urrunetik sistema batera zelan konektatu eta zelan administratu ere ikasten dugu. Sistema seguruak egiteko, susebakiak (*firewall*) eta *proxy*ak konfiguratzeko eta martxan ipintzen ere ikasten dugu, gaur egun hain modan dagoen gerra zibernetiko hori saihesteko. Hacker horiek egiten duten lana imitatzen saiatzen gara, gure sistemak ondo zelan babestu ikasteko. Sare eta web zerbitzuak garatzen, martxan ipintzen eta kudeatzen ikasten dugu. Erabilgarritasun handi-

ko sistemak ere maneiatzen ditugu, gure makinetan errendimendu handia lortzeko. Denetarik jakin behar dala esango nuke.

Ba al dago zerbait Iurretako institutuko Informatika ikasketak berezi egiten dituen?

Gauza pare bat azpimarratuko nituzke: alde batetik, gu software librearen aldekoak garenez, eta hori mundu profesionalean oso aukera egokia denez, Linux sistemak asko erabiltzen ditugu ikasleekin. Horregaz batera, orain dela urte bi, Linux Essentials zentro homologatuen ziurtagiria lortu genuen, bai eskolak emateko, bai titulua lortzeko azterketak egiteko. Horregatik, gure ikasleentzat zein kanpoko jendearentzat ere, eskolak eta azterketak antolatzen ditugu, Lanbideren zerbitzuagaz batera. Horrela, ikasketa ofizialetatik aparte, titulu profesional bat lortzeko aukera eskaintzen dugu. Beste alde batetik, azpimarratzekoa da gure ikasketak oso ikuspuntu praktikoagaz programatzen ditugula. Modulu guztietan praktika asko egiten ditugu, gauzak eginez ikasteko.

Ziklo honen ostean, zelako lanak egiten dituzte ikasleek?

Ikusi dugunez, sare administratzaile batek denetarik jakin behar du. Gainera, gaur egun edozein lekutan daude sistema informatikoak. Hori dela-eta, edozein esparrutan egin dezakete lan ikasleek. Adibide batzuk ipintzeagatik, zerbitzu informatikoak eskaintzen dituzten enpresetan ikasle ohiak ditugu, esaterako, mantentze informatikoan, web garapenean, sare zerbitzuetan eta online bidezko laguntza tekniketari lanean. Adibidez, aurtun, mantentze informatikoa egiten duen enpresa batean izan dugu ikasle bat praktikak egiten. Beste ikasle batzuek atzerrian egin dituzte praktikak, enpresa batean lan egiten zutela aprobetxatuta.



IURRETA
INSTITUTUA
Tel.: 94 466 88 00
www.iurreta-institutua.net

MATRIKULA EPEA
uztailaren
16tik 21era

AUTOMOZIOA

ADMINISTRAZIOA

ELEKTRONIKA

INFORMATIKA

FABRIKAZIO MEKANIKOA

ARRETA SOZIOSANITARIOA

MEREZI DU GUREKIN BIDAIAZTEA

Bakoitzak berea defendatzen hasi dute agintaldia EAJk eta EH Bilduk

Alkateak orain arteko 51.000 euroko soldata mantenduko du, eta batzorde informatiboetara kanpoko jendea gonbidatzeko aukera kendu du EAJk



Martitzenean, EAJko zinegotzien sei botoekin onartu zituzten lehen osoko bilkurako erabaki guztiak.

BERRIZ Amaia Ugalde

Sei eta lau. Horrela joan ziren agintaldiko lehen erabakiak hartzeko bozketak Berrizko Udalean. PSE-EEko zinegotzia faltan, EAJk eta EH Bilduk lehen eztabaidak izan zituzten. EAJk gehiengo absolutua lortu duenez, EH Bilduk dio ez duela akordioetara heltzeko ahalegirik egingo. Orland Isoird alkateak, bere aldetik, EH Bildu kritikatu du: “Gure proposamenen

kontra bozkatzen jardungo duzue, eta argudio bera erabiliko duzue hemendik aurrera”.

Erabakiak

EAJren botoekin, alkatearen soldata mantentzea –urtean 51.000 euro– onartu dute, baita osoko bilkurak bi hilerik behin egitea ere. EH Bilduk soldata hilean 2.000 eurokoa izatea proposatu du, eta bilkurak hileroko eginge, “jarraipen hobea egiteko”.

Eztabaida handia eragin du alderdiek batzordeetara gonbidatuak ekartzeko aukera kentzeak. Gonbidatuena gaietan jantzita dauden herritarren iritzia jasotzeko bidea zela esan du EH Bilduk. EAJren ustez, “alderdien inguruko jendea ekartzea ez da partaidetza; horretarako dago udaletxetik kanpo egiten dugun lana”. EH Bilduk erantzun: “Partaidetza foro bati inoiz ez diogu ezetz esango”.

Senegalgo eskola baten aldeko jaialdi solidarioa, Orue ikastetxean

ZORNOTZA J. Derteano

Zornotzako Orue ikastetxean jaialdi solidarioa egingo dute zapatuan, 11:00etatik 14:00etara. Senegalen 238 ume hartzen dituen eskola bat berrizteko materiala biltzea izango du helburu ekitaldiak.

Zornotzako Orue eskola-ko goi mailako Gizarteratze zikloko ikasleek antolatuko dute jaialdia, Afrika Bizirik elkartearen eta Laiene jate-txearen laguntzagaz. Merkatu solidarioa, Afrikako janariaren dastaketa eta zuzeneko musika afrikarra izango dira jaialdiaren osagaietako batzuk.

Senegalgo Niomré herrian 2007an eraiki zuten eskola, eta 238 ikasle ditu, sei mailatan banatuta. Eraikinak sei gela ditu, eta horietako bat lastoz eginda dago. Gainerako geletako teilatuak ere ez daude egoerarik onenean, haize indartsuen eta euriteen ondorioz. Eskolarako materiala ere behar dute; esaterako, liburu bakoitza bost ikasleren artean partekatzen dute.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Eskerrik asko guztioi

Urte amaieran, Durangoko udal hauteskundeetarako PPren hautagai zerrendaren parte izatea proposatu zidaten. Eta hemen nago, 960 durangarren botoei esker, zinegotzi; herritar horiei eskertu nahi diet lehenengoa nintzen zerrendan, eta modu batera edo bestera nigan, jarri duten konfiantzagatik.

Ordutik hona, niretzat ezusteko izan diren uneak, sentsazioak eta anekdotak bizi izan ditut, eta gertatuko zirela argi neukan beste batzuk ere bai. Horietatik guztietatik ikasi dut, disfrutatu dut eta atera dut zer bait posiboa.

Emandako pausoz damutzeko arrazoirik ez dut ikusi. Ez dakit zer ekarriko didaten hurrengo lau urteek, baina baloratzeko eta ondorioak ateratzeko orain arte kontatu dezakedanagatik, esan behar dudana zera da: Hau guztia galtzen nengibilen!

Askok dut eskertzeko. Botoa eman zigutenei eskertu diet. Horren aurretik nigan konfiantza izan zutenei, eta udalbatzarrean aulki bat hartzeko eta udaletxera noan bakoitzean daramadan ilusioa eramateko pausoa ematera bultzatu nindutenei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Horretan lehena Juanjo izan zen, nigan kofiantza izan eta proposamena egin zidalako. Jabik eta Josetxuk ere zerikusi handi izan zuten, ez bata, ez bestea durangarrak ez diren arren, ondo dakitelako zenbat maite dudan Durango eta denak emanda animatu nindutelako.

Botoa eman zigutenei eta maitasuna erakusten jarraitu dutenei, eskerrik asko. Baita udaleko langileei, egunerokoa erraztu egiten didatelako, eta udalbatzarrera osatzen dugun alderdi politiko guztietako zinegotziei ere.

Nire eskerrik zintzoenak tratu adeitsuagatik, eta merezi izango duela sentiaraztearren.

**Erredakzioan itzulia*

Mañariko Andra Mari jaiak aurkeztuko dituzte gaur

MAÑARIA Markel Onaindia

Hilabete falta da Andra Mari jaiak heltzeko, eta Jai Batzordeak osatu du dagoeneko egitaraua. Horrela, gaur, 19:30ean, jaien aurkezpena egingo dute udaletxeko udalbatzar aretoan. Lehenengo, iazko jaietan hartutako irudiekin landutako bideo bat proiektatuko dute, eta, gero, aurtengo egitarauaren berri emango dute Jai Batzordeko kideek.

Ekitaldi parte-hartzaileak

Aitziber Areitio Jai Batzordeko kidearen arabera, herritarrek

parte hartzen duten ekitaldiak mantenduko dituzte. Adibidez, herri afaria eta paella txapelketa izango dira ekintza horietako bi. Iaz burututako paella txapelketa

Lehenengo, iazko jaietan hartutako irudiekin landutako bideo bat proiektatuko dute

pelketan 25 taldek parte hartu zuten, eta 300 lagunetik gora batu ziren.

Muntatze eta garbiketa lanetarako boluntario bila

Jaietako bost egunetan behar dituzte boluntarioak

OTXANDIO J.D.

Otxandion, Santa Maña jaiak hasiko dituzte uztailaren 17an. Urtero legez, ekitaldiz betetako asteburu bi izango dira. Baina, dena behar bezala irten dadin, lan handia dago atzetik, eta hainbat zereginetarako boluntario bila dabil Jai Batzordea.

Alde batetik, azpiegiturak muntatu eta desmuntatzeko laguntza behar dute; kioskoaren muntaketa lana uztailaren 14an izango da, 09:00etan, eta desmuntaketa uztailaren 28an

egingo dute, 09:00etan. Laguntzaile horiei aseguru egingo diete. Kaleen garbiketa ere boluntarioen bitartez egiten dute, eta zeregin horretarako jende bila dabil. Hiru goizetarako behar dute jendea, eta banaketa adin tartearan arabera egingo dute: uztailaren 18an 25 urtetik beherakoak, uztailaren 19an 25-40 urte artekoak eta uztailaren 26an 40 urtetik gorakoak. Laguntzeko prest daudenak Jai Batzordeko edonogaz jarri daitezke hartu-emanetan.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

Gobernu akordioa adostu dute independenteek eta jeltzaleek

Navarro alkateaz gainera, beste bi zinegotzi ere lanaldi erdiz liberatzea adostu dute



Eguaztenez egin zuten agintaldiko lehenengo osoko bilkura.

ABADIÑO **Itsaso Esteban**
Astelehenean, prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuten Abadiño Independenten taldeak eta EAJk datozen lau urteetan “koalizioan gobernatzeko”

akordioa lortu dutela. Abadiño Independenten taldeak alderdiko hiru ordezkari eta EAJko bik osatuko dute gobernu, eta EAJ izango da zortzi batzordetik biren ardura: Kultura eta

Kirola, eta Nekazaritza Garapena, Turismoa eta Merkataritza batzordea.

Independenten taldeak eta EAJk nabarmendu dutenez, “herri administrazioari egonkortasuna

ematea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea” dute helburu, eta “aurreko agintaldian mantendu duten harremanen sakontzeko” sinatu dute akordioa.

Lehenengo bilkura

Eguazten goizean egin zuten Abadiño udalbatzaren lehenengo osoko bilkura, eta independenten eta jeltzaleen adostasunagaz onartu zuten, besteak beste, urtean 57.000 euroko soldata gordina jasoko duen Jose Luis Navarro alkatea ez ezik, beste bi ordezkari ere lanaldi erdiz liberatzea. Urtean 22.000 euroko soldata gordina jasoko dute ordezkari bi horiek. Mikel Urrutia EH Bilduren bozeroaleak kritikatu egin zuen erabaki hori: “Testuinguru sozioekonomikoa kontuan hartuz gero, liberatuen soldata horiek gehiegizkoak” dira.

Udalaz gaindiko erakundetan ere independenten eta jeltzaleen ordezkari dute Abadiño Udala: bina ordezkari edukiko dituzte.

> DURANGALDEA ASTEON

Erdella Eguna izango dute bihar

ELORRIO > Erdella Eguna izango dute, bihar, Elorrioren. 09:00etan, Erdella mendira igoko dira, eta, bueltan, herriko plazan jarraituko du jai egunak. 11:00etatik aurrera, adibidez, eskalada horma eta ohe elastikoak egongo dira. Triki-poteoaren ostean, herri bazkarian batuko dira, eta, 18:00etarako, umeentzako antzerkia prestatu dute.

Frackingari buruzko hitzaldia

ZORNOTZA > Ziztada gune askoak frackingaren inguruko hitzaldia antolatu du Luis Urrangoetxearen okupatutako lokalean. Domekan izango da, 19:00etan, eta Fracking Ez! taldeko kide bat gonbidatu dute. Hilaren 13tik 19ra Subilla-Gasteizen frackingaren aurka egingo den kanpaldiaren harira antolatu dute berbaldia.

Jabi Lauzurika ‘Apolo’ euskaltzalea hil da

DURANGO **M.O.**
Joan zen zapatuan, Jabi Lauzurika *Apolo* euskaltzalea hil zen Arrosan (Nafarroa Beherean), 55 urte zituela. Sortzez durangarra zen Lauzurika, baina urte askoan Bilbon bizitakoa zen. Euskalgintzan lan handia egin zuen, eta, atzo, omenaldia egin zioten Bilboko Zenbat Gara euskara elkarteak, Bilboko Kafe Antzokian.

Zenbat Gara elkartearen sortzaileetako bat izan zen Apolo, eta Bilboko Kafe Antzokiaren bultzatzaileetako bat ere bai. Gainera, kultur arloko kezkek Bilbo Hiria irratia eta Ibaizabal

telebista sustatzera ere eraman zuten. Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiak irakasle izan zen urte luzez.



JABI LAUZURIKA

Bertsozaleasuna pasioz bizi zuen, eta Bilboko Potojorran bertso eskolako kidea zen. Horri lotuta, Bilbo Hiria irratian bertsolaritzaren inguruko *Potto* saioa egiten zuen.

1.000 euroko saria emango diote jaietako kartel onenari

DURANGO **M.O.**
2015eko San Fausto jaietako kartel lehiaketa martxan dago, eta udalak 1.000 euro emango dizkio kartel onena sortzen duenari. Lehiaketan parte hartu gura dutenek lanak euskarri digitalean eta materialean aur-

keztu beharko dituzte, abuztuaren 31ko eguerdia baino lehen.

Herritarren iritzia

Aurkeztuko diren kartel guztien artean bost aukeratu dituzte epaimahaiak, eta galbahe horren ostean herritarrek esango dute zein den irabazlea. Irailaren 7tik 11ra bitartean udalaren webgunean eskegiko dituzte bost kartelak, eta herritarrek bertan eman ahal izango dute botoa. Irailaren 15ean jakinaraziko dute zein den aurtengo jaiak iragartzeko aukeratutako kartela.

Webgunean eskegiko dituzte bost kartel finalistak, eta herritarrek bertan eman ahal izango dute botoa

Jon Irazabali omenaldia, Ezpata Dantzari Egunean

Bihar egingo dute Ezpata Dantzari Eguna

GARAI **Markel Onaindia**
Bihar izango da Durangaldeko Ezpata Dantzari Eguna, bederatzi bat dantza talderen partaidetzagaz. Abadiño Gerediagako auzoan eta Garain izango dira ospakizunak, eta Jon Irazabal omentzeko aprobetxatuko dute. Urte askoan jaialdiaren antolatzailerik izan da Irazabal.

Antolatzailerik den Gerediagako Elkartek azaldu duenez, 18:00etan hasiko da jaialdia Traña-Matienatik Gerediagara auzorainoko kalejira batez. Dantza erakustaldia foru zelaian izango da, 19:00etatik aurrera.

Afaria, 21:30ean

Iluntzean, Garaira joango dira parte-hartzaileak, herri afariagaz jaia jarraituz. 21:30ean ipini dute hitzordua, herriko plazan bertan. Afalostean, Ansozregi taldearen erromeriagaz dantza egin ahal izango dute bertaratzen diren guztiek.

Iluntzean, Garaira joango dira parte-hartzaileak, herri afariagaz jaia jarraituz



Iaz, Garain bertan izan ziren Ezpata Dantzari Eguneko saioak. Gerediagako Elkartea

Iritzia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodununtzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatu dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



Jose Mari Azkarate | Europako Espazio Agentziako ingeniari ohia | Elorrio, 1946

“Herbehereetan, Meteosat proiektuaren koordinazioa egiten genuen guk”

Eguaztenean jaurtiko dute espaziora Meteosat satellite berria; Jose Mari Azkaratek lanketan parte hartu du



lometrorra egoten dira, Ekuador parean, baina beti leku berean; Lurragaz batera buelta ematen dute. Zazpi urterako bizitza daukate berez, baina orain arte gehiago izan dute. Berria botatzean, horiek lekuz aldatzen dituzte. Eguaztenean, laugarrena bota ostean, sei bat hilabete beharko ditu bere lekuan ondo kokatu ahal izateko. Badaezpada, aurrekoa izango du alboan, arazorik balego, ordezkkoa izateko. Horren aurrekoa, orbitatik

“*Meteosat zatika eraikitzen da Europa osoan: Frantzia, Alemanian, Italian...*”

ateratzen dute, kontrol barik, nahiz eta badakiten non dagoen. Gero, desintegratu egingo da.

Ikusiko al duzu eguazteneko jaurtiketa?

Alemaniko operazioen zentroan egongo naiz. Pantaila handi bat dute han, eta zuzenean ikusi daiteke jaurtiketa.

Egungo zibilizazioaren kezka bat da ea hor kanpoan bizitzarik egongo ote den.

Ez dut larregi sinisten gauza horietan; egon liteke, beharbada. Zientifikoak badabiltza lanean, eta uste dute nonbaiten egongo dela, baina inork ez daki. Baiteste, egunen batean, zerbait topatzea, baina urte asko beharko dira.

> BERBAZ Markel Onaindia
Telebistako eguraldi iragarpenak urte osoan pizten du interesa, eta emisio arrakastatsuenetako bat da Euskal Herrian. Bero egin duen egunotan ere, arreta handiz jarraitu ditugu iragarleen aurreikuspenak. Hurrengo ordu eta egunetan egingo duen eguraldia asmatzeko lan horretan, paper garrantzitsua betetzen du Meteosat satelliteak. Bada, urrutira joan barik, elorriar bat ibili da satellite horren eraikuntzan. 1986an, Herbehereetara joan zen Jose Mari Azkarate, Europako Espazio Agentzian (ESA) lan egitera, eta, duela lau urte jubilatu zen arte, Meteosaten koordinazio lanetan ibili zen. Eguaztenean jaurtiko dute Guayana Frantsesetik Meteosat berria, satellite familia horretako bigarren belaunaldiko laugarrena. Alemaniak zuzenean jarraituko du Meteosaten bidaia.

Zenbat urte eman zenituen Europako Espazio Agentzian? 25 urte egin nituen. 1986an joan nintzen, eta 2011n etorri. Hara joan orduko, Sener enpresan egon nintzen beharrean, espazioko sailean. Noiz edo noiz joaten ginen ESARA proiektuak aurkeztera, eta, halako batean, oposaketak egiteko aukera irten zen, eta izena eman nuen.

“*Satelliteak lurretik 44.000 bat kilometrorra egoten dira, Ekuador parean*”

Zelako esperientzia izan zen pertsonalki?

Ona. Lehenengotan apur bat gogorra izan zen, seme-alabak txikiak zirelako. Lau bat urte egin, eta bueltatzea pentsatzen genuen. Baina beste lau egitea erabaki genuen, eta, zortzi urte eginda genituenarako, umeak hango bizimodura ohituta zeuden. Ondo zeuden, eta han geratu ginen.

Lana gustatu zitzaizun? Zer proiektutan ibili zinen?

Bai, erraza zen, ez zen batere gogorra. ERSn (Earth Resort Satellite) hasi nintzen lanean, luraren behaketarako satellitean. 1991n jaurti genuen espaziora, eta bigarren eredu 1995ean. Gero, Meteosat proiektura pasatu nintzen, 1999 inguruan. 2002an bota genuen MSGren (Meteosat Second Generation) lehen satellitea. Zazpi egon ziren lehenengo belaunaldian, eta orain botako

dutena bigarren belaunaldiko azkena izango da. Gero hirugarren belaunaldia etorriko da.

Zein zen zure taldeak zeukan ardura?

Herbehereetan, Meteosat proiektuaren koordinazioa egiten genuen. Meteosat zatika eraikitzen da Europa osoan: Frantzia, Alemanian, Italian... Zati horiek Cannesen (Frantzia) batzen dira. Edukiontzia handi batean sartzen da satellitea, eta handik Guayana Frantsesera (Erdiloko Amerika) bidaltzen da, gero bertatik jaurti ahal izateko.

Zelan egiten da satellitearen jaurtiketa?

10.000 kilometrorra heldu bitartean, suziri batek altxatzen du. Baina hortik aurrera, ez dagoenez grabitate askorik, beste motor batzuen bidez jartzen da orbitan. Geogonkorra da, beti dago leku berean. Satelliteak badaki Siviri kamerak norantz begira egon behar duen, hori delako lurra ikuskatzen duena. Irudiak atera, eta antenatik bidaltzen ditu. Proiektuak 300 milioi euroko aurrekontua eduki dezakeela uste dut. Horretaz gainera, suziria bera ere ordaindu behar da, eta beste 100 bat milioi balioko ditu.

Eta satellitek gure telebistetara...

Irudiak Eumesat agentziara helitzen dira, eta horrek Europan zabaltzen ditu. Gero, radarrek emandako datuekin osatzen dituzte irudiak meteorologoek.

Eta zer gertatzen da aurretik espazioan dauden satellite guztiekin?

Satelliteak lurretik 44.000 bat ki-



Azkarate, taldean ezkerretik bigarrena, Meteosat alboan duela.

JAIK!

Otxandio

2015eko UZTAILA



**OTX
ANDI
OKO**
JAIK
2015



OTXANDIOKO
UDALA

*Otxandio Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*

OTXANDIOKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 17, barikua

15:00etan, urteroko gazte bazkaria, plazan.

18:00etan, gazte olinpiadak, plazan.

18:00etan, futbola partidua, Zelaietan: Vulcano-Athletic Club (beteranoak).

19:30ean, ohiko 'Salve Regina' abestuko dute, Santa Marina elizan.

19:30ean, Otxandioko txistularien kalejira.

20:00etan, Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

21:00etan, Vulcanoko jokalariek botako dute txupinazoa, eta, jarraian, urteroko danborrada egingo dute kalez kale.

22:30ean, erromeria Lisker taldeagaz.

23:30ean, kontzertuak, gaztetxean: Zain, Astalapo, Voltai eta Indarrap.

UZTAILAK 18, zapatua

12:00etan, herriko txistularien kalejira.

13:15ean, Urduri dantza taldearen ekitaldia.

17:30ean, pilota partidua, Mañondon: Afizionatuak: Urrejola-Mendia eta Larrañaga-Aguirre. Profesionalak: Olaizola I.a-Mikel Goñi eta Saralegi-Azpiazu.

20:00etan, 'Eska, eska, eska, hamaika eska' antzerkia, plazan.

23:30ean, Gorilak 26 taldearen erromeria.

UZTAILAK 19, domeka

07:30ean, diana eta kalejira

08:00etan, sokamuturra.

11:00etan, umeentzako jolasak, Otxandioko Euskaldunen Amaraunek antolatuta.

12:30ean, seigarren mailako umeek Umeen Eguneko txupinazoa botako dute.

12:30ean, Soinubilen V. Herri Kanta Eguna.

15:00etan, kantu bazkari herrikoia, Pasealekuan.

17:30ean, jolasen txokoa: umeentzako tailerrak eta puzgarriak, plazan.

17:30ean, Soinubilekin plaza dantza eta kantuak.

19:30ean, haurrentzako Irrien Lagunen ikuskizuna.

21:00etan, Umeen Eguneko azken txupinazoa.

UZTAILAK 23, eguna

18:30ean, bizikleta saltoen erakustaldia, Nebera mendiaren magalean.

UZTAILAK 24, barikua

17:00etan, urteroko tute, mus eta briska txapelketa, Kontseilupean.

19:00etan, 'Euskaraz gurot' herri krosa.

22:30ean, kuadrillen arteko playbacka.

UZTAILAK 25, zapatua

09:00etan, etxeko txiki eta gaztetxoentzako preska txapelketa, Mataderoan.

12:30ean, Otxandioko Urbiribil dultzainero taldearen kalejira.

14:00etan, San Martinen paella txapelketa, bola-joko txapelketa eta zuzeneko musika.

19:30ean, Barañaineko Igandea txaranga kalerik kale.

23:30ean, Eskean Kristo eta Belako taldeen kontzertua. Gero, Izerdi Gorria taldearen erromeria.

02:30ean, Las Tea Party DJak, gaztetxean.

UZTAILAK 26, domeka

12:30ean, Andikonako Foroak adostutako testua onartzeko ezohiko bilkura.

13:00etan, omenaldia 1936. urtean izandako bonbardaketan hildakoei, Andikona plazan. Andikonako Foroak adostutako testua irakurriko dute.

13:45ean, ohiko limonada, plaza nagusian.

14:00etan, Otxandioko eta Araiako banden ikuskizuna.

19:00etan, Zirikas Zirkusen 'Tren geltokia' zirku ikuskizuna, etxeko haur zein helduentzat.

20:00etan, Batukotx batukada taldearen emanaldia.

22:30ean, Orotz taldearen berbena.

00:30ean, 'Agur Santa Marina' abestuz amaiera emango zaie jaiiei, herriko plazan.



HONTZA EXTREM
DENONIZAKO ABENTURA PAKEA

Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com



ETXEBARRI NEKAZALTURISMOA

- Antzinako jauregia. 6 logela bikoitz bainugelarekin, ile-lehorgailuarekin eta telebistarekin.
- Gela bat ezinduentzako egokitua.
- Egongela, telebistarekin eta mahai-jokoekin. Wifia.
- Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea.
- Aparkalekua eta lorategia, barbakoa, mahai eta jesarlekuak.

Otxandio (Olaetara bidean)
945 450 123 • 676 947 523

Gazte Egunagaz abiatuko dituzte Otxandioko jaiak

Gazte asanbladako kideek kontzertuak antolatu dituzte gaur gauerako, gaztetxean

> JAIK Jone Guenetxea

Gazte Egunekeo ekitaldiek zabalduko dute, gaur, Otxandioko jaietako egitaraua. Gazteak bazkarian bilduko dira, eguerdian, eta, 18:00etarako, olinpiadak prestatu dituzte. Ohiko *Salve Regina* abestuko dute Santa Marina elizan, eta, ondoren, herriko Vulkano futbol taldeak txupinazoa jaurtiko du, jaiei hasiera ofiziala emateko. Gero, erromeriazaleek Lisker taldeagaz izango dute hitzordua. Gaztetxean, berriz, Zain, Astapalo, Voltai eta Indarrap taldeek kontzertua eskainiko dute.

Tradiziozko eguna

Tradizioz betetako eguna izaten da Santa Maña eguna, uztailaren 18a. Herriko txistularien kalejirak abiatuko du egun horretako egitaraua. Ondoren, Urduri dantza taldeak erakustaldia eskainiko du. Arratsaldean, pilota partiduak jokatu dituzte Mañondon. Besteak beste, Olaizola I.a-Mikel Goñi eta Saralegi-Azpiazu bikoteak lehiatuko dira.

Umeen ordua

Umeek ere badute zertaz gozatu Otxandioko jaietan. Uztailaren 19rako, hain zuzen, gaztetxoenei

bideratutako hainbat ekintza antolatu dituzte. Seigarren mailako ikasleek umeen egunekeo txupinazoa jaurtiko dute. Egun osoan umei zuzendutako ekintza ugari izango dituzte. Era berean, domekan, Herri Kanta Eguna izango dute otxandiarrek Soinubilen eskutik.

Jaiaren bigarren asteburuan ere, egitaraua ekintzaz betetako dator. Uztailaren 24an, *Euskaraz gurot* herri krosaren bidez, euskararen erabilera aldarrikatuko dute.

Zapatuan, ohitura den legez, San Martin baselizara lekualdatuko dute jaiak. Ermita inguruko landan ehunka otxandiar batuko dira egun-pasa.

Bonbardaketa gogoan

Zibilen kontra bonbak lehenengoz Otxandion jaurti zituzten, 1936an. Hori gogora ekartzeko, bonbardaketan hildakoei omenaldia egingo diete Andikona plazan. Ekitaldi horretan, Urtzi Armendariz alkateak Andikonako Foroak adostutako testua irakurriko du. Foro horretan, zinegotzi eta alkate ohiak zubiak eraikitzen dabiltza bakegintza-aren inguruan, eta ezohiko bilkuran onartuko dute idatzia.



Bonbardaketan hildakoei, iaz, Andikona plazan egindako omenaldiko irudi bat.



Txistularien kalejirak jaietako giroa alaitzen du, urtero, Otxandion.

Harategia

Gaztañeta

Urdaitegia

Artekale, 25 OTXANDIO - Bizkaia • Tel.: 945 450 846

URREJOLA

okindegia

ale eta ongarrien biltegia

Artekale 31
Tel.: 945 45 00 93
Otxandio

Haitz taberna

Artekale, 32
Tel.: 945 461 426
OTXANDIO

KOROSTONDO

janari dendak

Artekale 19 OTXANDIO
Tel.: 945 45 00 94

Taberna LORA

Artekale 16 - Tel.: 677 568 580 - OTXANDIO

Rosa Mari

Estankoa egunkariak
aldizkariak

Plaza Nagusia 9
• Otxandio
• Tel.: 945 45 00 33

KOSKA

TABERNA

Tel: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO



Vulcanoren urteurrena ospatzeko, ekainean antolatutako jaira bertaratutako guztiekin familia argazkia atera zuten.

Athleticen kontra jokatu ostean, Vulcanok emango die jaiei hasiera txupinazoagaz

Aurten 50 urte egin dituen Vulcano futbol taldeak emango die hasiera Santa Maña jaiei, datorren barikuan

► **JAIK!** Joseba Derteano

Vulcano futbol taldeak jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzte Otxandioko Santa Maña jaiak, datorren asteko barikuan. Aurten, taldea sortu zela 50 urte bete direlako eskaini dio aukera hori Jai Batzordeak. Aspaldian sarritan errepikatu den arrazoia izan da urteurrenena: azken bost urteetan, Urduri dantza taldeak eta Mirugain mendi taldeak ere 50 urte egin dituzte, eta udaletxeko balkoitik jaiei hasiera emateko aukera izan dute.

Uztailaren 17a egun osoa izango da Vulcanoko jokalarientzat. 21:00etan, txupinazoa jaurti eta pregoia irakurri aurretik, urteurrenaren harira antolatutako futbol partidua jokatu dute, 18:00etatik aurrera, Zelaia futbol zelaian. Vulcanok Athletic taldean ibiliak diren jokalariez osatutako taldearen

kontrako jokatu du partidua. Ez da Athleticen beterranoen talde ofiziala: "Taldea ofiziala ekartzea gaitza da", adierazi du Javier Axpe Vulcanoko jokalaria: "Eskaera aurretia askoz egin behar da, eta diru asko eskatzen dute". Baina Vulcanoko jokalaria den Koikili Lertxundiren bidez, Athleticen ibili diren jokalariekin taldea osatzea eta Otxandiora ekartzea lortu dute.

Jokari ezagunak

Athleticzale direnek ondo eza gutzen dituzten jokariak etorriko dira: Igor Gabilondo, Roberto Martínez *Tiko*, Armando Ribeiro, Asier del Horno, Luis Prieto, Mikel Dañobeitia eta Javi Casas, besteak beste.

Vulcano taldea ohiko jokalariek osatuko dute; aurten, Mailara Gorenerako igoera lortu duen taldeak jokatu du

Athleticen aurka. Liga apirilean amaitu zuen arren, harrezkero astean behin entrenatzen ibili da jaietako partidua prestatu, eta sasoiari eusteko: "Trailera

Asier del Horno, Luis Prieto, Roberto Martínez 'Tiko' eta Mikel Dañobeitia jokariak etorriko dira

Liga aspaldi amaitu zuten arren, Vulcanoko jokariak astean behin entrenatu dira partidua sasoiari jokatze

arte ez dugu liga denboraldia hasiko, eta normalena litzateke, sasoi honetan ez entrenatzea, baina partidua prestatzeko astean behin batzea erabaki genuen. Partidu polita egitea eta jendeak gozatzea da helburua; eta irabazten badugu, askoz hobeto". Partidua amaitu ostean, ordubete izango dute dutxa bat hartu eta udaletxeko balkoira joateko. Txupinazoaren ostean,



Maila Gorenerako igoera lortu du aurten Vulcanok.

talde bietako jokalariek elkarrekin afalduko dute.

Ospakizunez ospakizun

Futbol taldearen urteurrena ospatzeko, jaialdia antolatu zuten ekainean. Besteak beste, gazte txoen mailako futbol txapelketa egin zuten, Zelaietan. Ondoren, Vulcanoko jokalariekin eta zaleekin, zein txapelketara hurreratu ziren guztiekin familia argazkia atera zuten. Osteko bazkaria arrakastatsua izan zen, eta 200 lagunetik gora batu ziren otordura. Arratsaldean, oster, umeentzako jolasak eta musika izan ziren, eguraldi eskasak ekitaldi guztiak baldintzatu bazituen ere.

danoena
taberna

jai zoriontsuak denoi

plaza nagusia 5. OTXANDIO Tel.: 945 45 02 48

Natura - Euskara - Kirola - Pertsona

ONDO PASAU JAIXETAN!!!

www.koikiliaterpetxea.eus
Artekale, 17 Otxandio - Bizkaia Tel.: 945 45 03 01

ITZARRI natura
koikili aterpetxea
ITZARRI

JAIK!

Zornotza

2015eko UZTAILA



ZORNOTZAKO

UZTAILAK 15, eguaztena

20:00 Herriko plazan, pregoia, txupinazoa eta kalejira, Zornotzako erraldoi eta buruhandiak, Ondalan zaldiko, erraldoi eta buruhandien konpartsa, gaiteroak eta txistulariak.

20:30 Kalbarioa-Euskal Herria enparantzan, kaleko musika: Bandarra Street Band.

22:00 Zubiondo parkean, kontzertua eta erromeria: Vendetta eta Batek Daki.

UZTAILAK 16, eguena

11:00 Herrian zehar, Udazken txistulari taldearen kalejira.

Goizean, Larrean, Karmen jaia. Meza, bertsolariak, Udabarri dantza taldea eta euskal erromeria Triki Piu taldeagaz.

Ostean, Larreako landetan, herri kirolak. Harri-jasotzailea: Perurena II.a. Aizkolariak: Urrezko Txapeldunen Liga: Iñaki Azurmendi (2015eko Urrezko txapelduna) Donato Larretxea (2015eko Urrezko txapelketako 3.a).

18:00 Amorebieta IV.a pilotalekuan, pilota partidu profesionalak Idoate-Iza – Victor-Larunbe eta Berasaluze II.a-Albisu – Bengoetxea IV.a- Untoria.

20:00 Gernika plazan, antzerkia: 'Walkman'. Ganso&Cia.

22:00 Zubiondo plazan, erromeria: Egan.

UZTAILAK 17, barikua

Egun guztian, txosnetan, Kuadrillen Eguna. Kuadrillen herri bazkaria eta hainbat ekintza.

11:00 Zelaieta parkean, La Bombonera. Futbola: 3x3.

17:00 Herriko plazan, ETBko 'Kantugiro' karaoke saioaren grabazioa.

17:30 Amorebieta IV.a pilotalekuan, Karmenetako VI. Esku Pilota Txapelketako finalaurrekoak.

21:00 Zelaieta parkean, Txistularien XVI. Kontzertua. Artista gonbidatuak: El Drogas + Aidae.

22:00 Zubiondo parkean, kontzertua: Los Sabandeños.

23:00 Txosnagunean, kontzertua: Hora Trece eta Gatillazo.

UZTAILAK 18, zapatua

Goizean, Zubiondo parkean, marmitako lehiaketa. Amantala eskuefian gaixotasun arraroekin.

09:00 Ibaizabal errekan, umeen arrantza lehiaketa.

11:00 Gure Kirolak bolatokian, umeentzako bola-joko txapelketa.

18:30 Amorebieta IV.a pilotalekuan, Zornotzako I. Master Kaiolako Finalak.

19:00 Zelaieta zentroan, DJ topaketa. Alex TC, David Medina, Josu Aramburu, Nemo Gauss, Aka Fernando, Carvalho Taykus eta Unaiz & Maik.

21:00 Gure Kirolak bolatokian, Karmenetako V. Bola-joko Txapelketa.

22:30 Zubiondo plazan, kontzertua eta erromeria: Betagarri eta Zirkinik Bez.

24:00 Txosnagunean, DJ Kul eta The Middle Finger.

UZTAILAK 19, domeka

11:30 Zubiondo plazan, umeentzako jolas parkea. Ezinezkoen Feria. Federito eta gaixotasun arraroak.

12:00 Herriko plazan, musika bandaren kontzertua.

12:00 Jauregibarria parkean, arku tiroketa saioa.

17:00 Amorebieta IV.a pilotalekuan, Karmenetako VI. Esku Pilota Txapelketako finalaurrekoak.

17:00 Zubiondo plazan, umeentzako puzgarriak.

21:00 Zelaieta parkean, kontzertua: Mikel Urdangarin eta Ane Etchegoyen.

UZTAILAK 20, astelehena

Egun guztian, AESK lokala Txiki Oñegin. Umeentzako IV. Rally Slot Amorebieta Txapelketa.

21:00 Herriko plazan, bertsolariak. Herrialdeetako txapeldunen saioa: Fredi Paia, Sustrai Colina, Julio Soto eta Manex Agirre. Euria eginez gero, Zornotza Aretoan.

UZTAILAK 21, martitzena

18:00 Amorebieta IV.a pilotalekuan, pala partiduak. Herriko Txapelketako finalerdiak.

19:00 Txosnagunean, kuadrillen arteko Talent Show proba.

22:00 Herriko plazan, nazioarteko dantzak: Akud Branko Krsmanovic (Serbia). Euria eginez gero, Zornotza Aretoan.



MILA BAIETZ

JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 22, eguaztena

21:00 Herriko plazan, dantza ikuskizuna: 'Hazipenen pozak'. Kukai-Tanttaka.

22:30 Zubiondo plazan, kaleko zinema.

UZTAILAK 23, eguna

18:30 Ibaizabal errekan, kuadrilen arteko piragua jaitziera.

19:00 Umeen danborrada.

22:00 Herriko plazan, zirku-antzerkia: 'Rudo'. Cia. Manolo Alcantara.

UZTAILAK 24, barikua

17:00 Zelaieta parkean, aldi bereko 50 xake partida. Javier Marchenaren kontra (Bizkaiko txapelketa eta FIDE maisua).

17:00 Larrea kiroldegian, Jaietako I. Padel Txapelketako finalurrekoak.

18:00 Zubiondo parkean, Bizikleta Eguna.

18:30 Amorebieta IV.a pilotalekuan, pala partiduak. Herriko Txapelketako finalak.

21:00 Zubiondo plazan, Zu Zeu Artista! Herriko Gazteen Proposamen Eszenikoen VI. Lehiaketa (+10 urte).

22:00 Zubiondo plazan, kontzertua eta disko festa: Random, Twin Melody eta Oihan Vega.

23:00 Txosnagunean, kontzertua: Larregi eta Hesian.

24:00 Txosnagunean, alkoholemia karpa.

UZTAILAK 25, zapatua

Goizean, Zelaieta parkean, baserriarren azoka.

Egun guztian, aitieta-amamen jaia: meza, aurrekua, erromeria. Izena emateko: Nafarroa zentroa.

Egun guztian, Txolon futbol zelaian, Errugbi Eguna.

09:00 Boroa industrialdean, XCI. Usakume Tiroketa Ofiziala.

10:00 Katibi zalditegian, Euskadiko Ekitazio Txapelketa Osoa: hezte, salto eta kros probak.

11:00 Larrea kiroldegian, Jaietako I. Padel Txapelketako finalak.

17:00 Amorebieta IV.a pilotalekuan, Karmenetako VI. Esku Pilota Txapelketako finalak.

17:00 Urbano Larruzea kalean, Agustin Zamakonaren Oroimenezko 34. Xake Txapelketa.

18:30 Urritxe futbol zelaia. SDA taldearen aurkezpen partidua. IV. Amorebieta-Etxanoko Udala Saria.

18:30 Zelaieta parkean, kuadrilen arteko herri kirolak.

19:00 Herriko plazan eta San Miguel kalean, Amorebieta-Etxanoko IV. milia.

22:30 Jauregibarrian, su artifizialak. Zaragozana piroteknia.

22:45 Zubiondo plazan, camp berbera: London orkestra.

23:00 Txosnagunean, kontzertua: Cara Y Cruz eta Ze Esatek!.

UZTAILAK 26, domeka

09:00 Boroa industrialdean, XCI. Usakume Tiroketa Herrikoa. Izen-ematea 17:00etan bukatuko da.

10:30 Zezilia Gallartzagaitian, 5'ko tren zirku iturri eramangarria.

11:00 Jauregibarrian, Bizkaiko Abeldur Piriniotarren VII. Txapelketa.

11:00 Jauregibarrian, ontzi-modelismo erakustaldia.

11:30 Zelaieta parkean, umeentzako jolas parkea. Circomotik. Laguntza jokoak ASEBilagaz.

12:30 Zelaieta parkean, ipuin kontalaria ingelesez. Kid&Us.

17:00 Zelaieta parkean, umeentzako puzgarriak.

19:00 Zelaieta parkean, umeentzako antzerkia 'Kontu kantari'. La Resistens Kolektibo.

22:30 Danborrada.

UZTAILAK 27, astelehena

19:30 Kuadrillen Arteko XVI. Mozorro Lehiaketa Sugarri eta Zaparrada batukada taldeekin.

20:30 Herriko plaza. Mozorro lehiaketaren sari banaketa.

21:00 Harrison -Luis Urrengoetxea - Euskal Herria plaza - Kalbarioa Kaleko musika, Zaparrada batukada.

21:00 Andra Mari plaza - Zezilia Gallartzagaitia. Kaleko musika, Sugarri.

22:30 Zubiondo plaza, Kontzertua: ABBA The New Experience.



DOAN

- 1.000 HARPIDEDUN ZORNOTZAN -

Egin zaitez ANBOTOren harpidedun eta Karmen jai zoriontsuak pasa!

HARPIDETZA

Harpidedun egiteko honako 4 aukera hauek dituzu:

www.
anboto.org

anboto@
anboto.org

**946
816
558**

Bixente
Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Mari Carmen Montoya | Zornotza, 1925 | Zornotza Xake Taldeko presidentea



Galiziako komentu batean zebilela zaletu zen xakera, moja bati esker.

“Urtebeterako kargua izango zela uste nuen, eta 34 urte daramatzat presidente”

Aurten, Zornotza Xake Taldeari dagokio jaietako txupinazoa jaurti, eta pregoia irakurtzeko ardura

» XAKEA Joseba Derteano

Aurten, jaietako txupinazioa jaurtitzeko eta pregoia irakurtzeko ohorea Zornotza Xake Taldeari dagokio. Taldearen izenean Mari Carmen Montoya presidenteak izango du horretarako ardura. Montoyak 30 urtetik gora daramatza xake taldeko presidentea karguan. 90 urte gaz errelebo eske dabilela onartu du, baina kargua ez zaio astuna egiten, asko laguntzen diotelako, eta gustura dabilela ere onartu du.

Hiru hamarkadatik gora daramatzazu presidente karguan. Oraindik luzerako?

Egia esanda, lanik sakonena taldeko gainontzeko kideek egiten dute, eta asko errazten dute nire. Horrela, edonor izan daiteke betiko presidente. Jende zoragarria dago taldean. Hainbeste urtean sekula ez dugu berba bat bestearen gainetik egin. Hasieran, kargua hartu nuenean, zama bat iruditzen zitzaidan, nik nire farmazia nuelako, baina onartu behar dut ez zaidala bat ere astuna egin. Poz handiz eraman dut. Noiz arte jarraituko dudun? Eurek gura duten arte.

Sarritan eskatu dut ordezkatu nazatela, baina ez didate uzten. Nigaz gustura daudela esan, eta jarraitzeko eskatu izan didate.

Nondik datorkizu xakearekiko zaletasuna?

1940ko hamarkadaren amaieran Farmazia ikasketak egin nituen Santiago de Compostelan [Galizia]. Ni hango komentu batean bizi nintzen. Gerraostea zen, eta krisia zegoen. Gaur egun baino oraindino baliabide gutxiago zeuden. Gainera, komentuko nire lagun guztiak galiziarrak ziren. Ni nintzen kanpotik joandako bakarra. Beraz, arratsaldeak komentuan ematen nituen. Xakea gustatzen zitzaion moja bat zegoen, eta nik haregaz jokatzeko modua izan zen. Nire aitari ere gustatzen zitzaion xakea, eta jokatzeko zuen, baina batez ere Galiziako urte haietan zaletu nintzen xakera, eta harrezkero mantendu egin dut.

Hona bueltatu zinenen zalatasunagaz jarraitu zenuen?

Bai. Zornotza Xake Taldeak presidente bi bakarrik izan ditu sortu zenetik hona. Lehenengoa

Agustin Zamakona izan zen, eta neure aitagaz jokatu ohi zuen xakean. Nik, bitartean, xakean jokatzeko jarraitzen nuen. Berak presidente izateari utzi zionean, niri eskatu zidan kargua hartzeko. Nik urtebeterako edo birako izango zela uste nuen, laster ordezkatuko nindutela, eta konturatu orduko 34 urte daramatzat presidente. Antza, ez dago xake taldea uzteko modurik [barrez].

Zelan dago xakearekiko afizioa Zornotzan?



Zornotza Xake Taldea Durangaldeko xake talderik garrantzitsuenetakoa da.

Batzeko toki finko bat dugu, taldeko jendea ikastetxeetara joaten da xakea zabaltzera, eta nik esango nuke herrian badagoela zaletasuna. Euska Herriko Txapelketa Zornotzan antolatzen dugu urtero. Aurten hamargarren aldia izan du. Euskal Herriko xakelaririk onenak Zornotzan batzen dira, eta hori ere garrantzitsua da.

Txupinazo egunean pregoia irakurtzea ere egokitu zaizu. Zer prestatu duzu?

Ez iezadazu aipatu ere egin! Ni horrelako ekitaldietan urduri jartzen naiz, eta ez nuen nahi, baina ni izan behar nintzela ekin eta ekin ibili zitzaizkidan. Alabak lagundu dit pregoia prestatzen. Irakurri egingo dut, eta horrela lasaiago nago. Euskaraz ere izango da zati bat; nire euskararen, jakina, etxe-koan.

Aitak xakean jokatzeko zuen eta zuk ere bai. Seme-alabek jarraitu dute tradizioagaz?

Nire seme batek xakean jokatu izan du, eta orain biloba bat dabil Zornotzako taldean. Xake leinuak aurrera jarraitzen du [barrez]. Familian zaletasunak aurrera jarraitzen duela ikus-teak asko pozten nau.

Valentziatik etorri den eta Zornotzan xakean dabilen emakume bat duzue taldean: Angels Cucarella.

Lehen aldiz jokatzeko ikusi nuenean ilusio itzela egin zidan. Baina, jakina, hain egoten dira kontzentratuta euren jokoa, ez nintzen ausartu beragaz berba egitera. Lasai utzi nuen, partidun murgilduta zegoelako. Baina, egia esanda, ez dut ezagutzen, eta gogo handia dut beragaz egoteko eta berbaldi bat izateko.

Zornotzako jaiak gustatzen zaizkizu?

Ez naiz oso jaizalea. Beti esan ohi dut gehiago naizela Beethoven zalea. Opera eta kontzertuak asko gustatzen zaizkit. Euskalduna jauregira joaten naiz neure semeagaz.

Gurago duzu kontzertu bat lasaitasunez gozatu jaietako saltsan murgildu beharrean.

Ni bizi naizen ingurua jaien erdigunea da, eta zalaparta handia egoten da sarritan. Beraz, Goitondorantzako bidean dagoen errota ingurura joaten naiz paseatzera. Han toki lasaiagoak daude.



Ekin kooperatiba elkarteak irudi berria du

‘Thinking Together’ leloak protagonismo berezia du

> Ekin

Ekin kooperatiba elkarteak orain dela 25 urte aldatu zuen, azkenekoz, logotipoa. Ordutik hona, Ekin asko aldatu da, eta aldaketa hori are nabarmenagoa izan da azkeneko zazpi urteetan, erakundea Ner Group taldean sartu denetik. Hori dela-eta, ezinbestekoa zen gure irudia eta komunikazio bidea gaur egun garen eta egiten dugun horretara egokitzea: egunero aurrerantz doan erakunde bat, bizirik dagoena eta egiten duenagaz hunkitzen dena, eta hori guztia bezeroarekiko arretan eta haren beharretan islatzen duena, alde batera utzi barik nondik datorren eta 50 urtetik gorako ibilbidean metatutako esperientzia. Pertsonengan oinarritutako erakundea, etengabe garatzen eta hazten jarraitzen duena.

Ikuspuntu hori kontuan izanda, erakundeak irudi berria sortu du, *Thinking Together* leloan oinarrituta dagoena. Lelo horrek barrurako zein kanporako balio du. Barrura begira, adierazten digu langile guztiok eta gutako bakoitzak gure alea jartzen


dugula, denok noranzko berean ari-tuta lortzen ditugula helburuak eta erakundeari gaur egun duen izaera ematen diogula. Kanpora begira, bezeroei, hornitzaileei, kolaboratzaileei eta, zergatik ez, lehiakideei helarazi nahi diegu elkarlana dela aurrera egiteko biderik errazena.

Logotipo berriak aurrekoaren antz handia du, baina garatu egin da. *Ekin* berbaren esanahia indartzen du, eta bizitasuna adierazten du. Koloreari dagokionez, urdina beti egon da Ekinen, eta identifikatu egiten gaitu. Titanioa, azkenik, brotxa (erreminta) askotan erabiltzen dugun estaldura bat da.

Aldaketa honegaz, mundu mailako beste lehiakide eta erakunde batzuegandik bereizten gaituena nabarmendu nahi dugu. Pertsonengan oinarritutako proiektu bat gara, eta proiektu hori arrakastaz handitzen jarraitzeko konpromisoa dugu. Azken batean, Ekin eta Ner Group gisa gure balioak hobeto islatuko lituzkeen irudi bat nahi genuen. Eta lortu dugu.

ekin s.coop.

Arriagane industrialdea, z/g (Boraa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia)
www.ekin.es



Teseoren paradoxa
argitu dugu



“Teseok eta Atenasko gazteek Kretatik itzultzeko erabili zuten itsasontziak 30 arraun zituen, eta atenastarrek Faleroko Demetrioren garaioak gordetzen zuten. Hordatutako ohol eta arraunak kendu, eta ohol berri eta sendagoak jartzen zizkieten”.


Atalak banan-banan ordezkatzuz gero, itsasontzi bera izaten jarraituko luke, ala beste itsasontzi bat izango litzateke? Hausnar ezazu.



Irudi berria, logotipo berria
Ekin izaten jarraitzeko aldatu gara



Ekin S.Coop.
Arriagane industrialdea (Boraa auzoa)
48340 AMOREBIETA (Bizkaia)
• www.ekin.es



Kultur eskaintza zabala eta herriko elkarteen lana uztartuko dituzte

Zornotza Xake Klubak irakurritako pregoiagaz jai giroan murgilduko dira



Estilo eta gustu guztiei erantzun gura dien egitaraua osatu dute, Zelaieta zentroan egindako aurkezpenean azadu dutenez.

> JAIK Aitziber Basauri

Azken urteetako formulari eutsita, musika eskaintzak, kale ikuskizunek eta herriko kultur, kirol eta gizarte eragileek antolatutako jarduerak osatutako jai egitarau zabala dute datozen egunotarako Zornotzan. Luisja Ugarte kultura teknikariaren berbetan, oreka lortu dute, eta hori da nobedade nagusia: "Izen propioak aldatu diren arren, oreka mantentzeko formula topatu dugu, baita, orokorrean, oso erantzun ona lortu ere".

Bide horretan, pregoia irakurriko duen Zornotza Xake Klubari eta jaien antolaketan parte hartu duten herriko elkarte guztiei esker ona adierazi gura izan diete aurkezpen ekitaldian, eta xake klubaren lana goratu du Andoni Agirrebeitia alkateak. Askotariko estiloak eta gustuak

batu dituzte uztailaren 15ean hasiko diren Karmen jaietan. Ez dute hutsik egingo tradizio luzea duten ekintza jendetsuek: adibidez, Larreako ekitaldiak, aitita-amamen jaiak, Santanatu egunak, danborradak eta Kuadrilen Egunak; ezta azken urteetan indarra hartu duen marmitako txapelketak ere.

Eraso sexisten kontrako 'txapak' banatuko dituzte, Berdintasun Batzordearen ekimenez

Musika eskaintza zabala izango da: Betagarri, Vendetta, Los Sabandeiros, Mikel Urdangarin eta Anne Etchegoyen

egongo dira. Kale ikuskizunei dagokienez, Kukai-Ttanttakaren, Gansoren eta Serbiatik etorritako dantza talde baten saioak izango dira ikusgai.

Berdintasuna

Mitxel Etxebarria Kultura zinegotziak gogoratu du jaiak ondo pasatzeko direla, baina "adiskidetasunez eta tolerantziarekin". Gizabidez jokatzeko eskatu du, eta sexu erasoak gaitzetsi ditu. Jaiak berdintasuna eta dibertsitatea aintzat hartuz disfrutatzeko eskaera egin du udalak. Horregaz lotuta, Berdintasun Batzordearen ekimenez, eraso sexisten kontrako txapak banatuko dituzte, baita, txosnagunean eta tabernetan, 10.000 ahozapi ere. Marmitako txapelketan 3.000 pegatina banatuko dituzte aulki eta mahaiekin.



Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo eta Xabin Fernández dira karaokearen aurkezleak.



Uda sasoian Euskal Herriko jaiak bisitatzen dabil 'Kantugiro' saioa.

'Kantugiro' Zornotzako abeslari onenaren bila dabil

Karaokean parte hartzeko izena eman daiteke

> JAIK Jone Guenetxea

Zuriñe Hidalgo eta Xabin Fernandezek ETB1en gidatzen duten *Kantugiro* saioak Zornotzan geldialdia egingo du, Karmen jaietan. Lesakan, Hernanin, Lekeitio eta Zumarragan egon ostean, uztailaren 17an, zornotzarrek kantuan egiteko duten sena erakusteko aukera izango dute. Euskal Herriko karaoke-rik handiena udaletxe pareko plazan atonduko dute datorren asteko barikuan, 17:00etatik au-

rrera. Saioaren arduradunek jakinarazi dutenez, "Durgaldeko saltsero eta abeslarien bila gabiltza, karaokean parte hartzeko". Abeslaririk onenak 200 euroko saria eramango du etxera.

Izen-ematea

Izena eman gura dutenek *whatsapp* bat bidali behar dute 626 181 417 telefono zenbakira, edo mezu bat *kantugiro@eitb.eus* helbide elektronikora.

Urgozo taldea ezagutarazteko antolatu dute jaietako Errugbi Eguna

Uztailaren 25ean, egun osoan egingo dituzte Errugbi Eguneko ekintzak



Urgozo taldeko jokalariek antolatu dituzte Errugbi Eguneko ekintzak.

> KIROLA Itsaso Esteban

Zornotzako Urgozo Rugby Taldearen ekimenez izango dute, uztailaren 25ean, Errugbi Eguna, lehenengoz. Antolatzaileen helburua da, jaietan parte hartuz, aurtien sorturiko Urgozo taldearen jarduna eta errugbizaritasuna herrira zabaltzea.

Errugbiagaz lotura duten umeentzako jolasak egingo dituzte, goizean, herriko kaleetan zehar

Zornotzako jaietako bigarren zapatuan, egun osoan hainbat ekintza egingo dituzte: goizean, errugbiagaz lotura duten umeentzako jolasak egingo

dituzte, Zornotzako kaleetan zehar. Urgozo taldeko jokalariek ibiliko dira parte hartzera eta errugbia ezagutzera hurreratzeko diren umeekin jolasten. Arratsaldean, berriz, Txolon zelaian izango da hitzordua: torneoak jokatzeko dute.

Hogeita hamar kidek osatzen dute Urgozo Rugby Taldea; 16 urtetik 36ra bitarteko errugbi jokalariek, hain zuzen ere. Taldeko jokalariek gehienak zornotzarrek diren arren, eskualdeko beste herri batzuetako zaleak ere hartu dituzte talde sortu berrian. Taldeko kideetako batzuek lehenago ere jokatu izan dute errugbian, beste talde batzuetan, baina gehienentzat Urgozo taldekoa da errugbi talde batean lehenengo esperientzia. Urrian ligako partiduei ekitea ipini dute helburutzat.

Zuzeneko musikagaz gozatzeko hogei hitzordu baino gehiago, jaietarako

Askotariko kontzertuak eta egunez kaleak musikaz beteko dituzten kalejirak izango dira Zornotzan



Mikel Urdangarinek herrikideen aurrean joko du, uztailaren 19an, Zelaieta parkean.

> JAIK! Itsaso Esteban Askotariko kontzertuak, dozena bat baino gehiago, programatu dituzte, uztailaren 15etik 27ra arte izango diren Zornotzako jaietarako. Zuzeneko musika emanaldiei dagokienez, hainbat batukada, kalejira eta erro-

meria izango dira Zornotzako jaietan.

Gainera, herriko hainbat musikaririk ere egingo dute euren ekarpena, jaiei doinua ipintzeko. Besteak beste, Mikel Urdangarin bakarlariak kantatuko du, uztailaren 19an, 21:00etatik

aurrera, Zelaieta parkean. Gainera, Anne Etchegoyen donapaleutarrak ere kantatuko du egun eta leku berean.

Vendetta eta Betagarri musika taldeek ipiniko dituzte dantzarako ska erritmo alaiak, Zornotzako jaietan

Herriko txistulariek eta musika bandak, eta Zornotzako Zaparrada batukada taldeak eta Zirkinik Bez erromeria taldeak ere eskainiko dituzte emanaldiak. Bestetik, Durangoko Sugarrri taldea Andra Maria plazaren eta Zezilia Gallartza goitia kalearen inguruan ibiliko da, uztailaren 27an, 21:00etatik aurrera, eta egun eta ordu berean Luis Urrengotxea kalearen eta Euskal Herria plazaren inguruan ibiliko da Zaparrada taldea.

Herriko txistulariek eta musika bandak, eta Zornotzako Zaparrada eta Zirkinik Bez taldeek joko dute jaietan

Bandarra Street Band tadeak ere eskainiko du musika kalean, uztailaren 15ean, 20:30ean hasita. Eta umeen danborrada ere entzungai izango da kalerik kale, uztailaren 23an, 19:00etatik aurrera.

Vendetta eta Betagarri taldeek, ostera, dantzarako erritmorik alaiak ipiniko dituzte. Vendettaren ska doinuak jaien lehenengo egunean izango dira entzungai. Zubiondo parkean eskainiko du kontzertua, 22:00etatik aurrera. Jaien lehenengo eguna jai giroan eta dantzan amaitzeko, Vendettaren kontzertuaren ostean, erromeria eskainiko du Batek Daki taldeak.

Gatillazo, Betagarri, Los Sabinos eta Hora Trece musika taldeen emanaldiak ere izango dira, besteak beste, Zornotzako jaietan gozagai.

Txapeldunen bertso saioa

Zuzeneko musika eskaintzagaz ez ezik, bestelako kultur adierazpenez josita dago Zornotzako jai egitaraua: dantza eta bertso saioak ere egongo dira, esaterako. Uztailaren 20an, 21:00etan, Herriko plazan egingo dute jaietako bertso saioa, eta herrialdeetako txapeldunak gonbidatu dituzte bertan kantatzera: Fredi Paia, Sustrai Colina, Julio Soto eta Manex Agirre.

Gazteek Talent Show proba antolatu dute jaietarako, aurten, lehenengoz

Playback lehiaketaren ordean antolatu dute Talent Showa, uztailaren 21erako

> JAIK! I.E.

Gazteek ondo pasazen dute eta elkar ezagutzen dute Zornotzako Gazteak taldeak jai eguntarako antolatzen dituen ekintzetan. Esate baterako, hainbat ekintza biltzen dituen erronkekin *challenge* deitzen duten lehiaketa antolatu dute. Lau ekintza egingo dituzte *challenge* horretan parte hartzerantz animatzen diren kuadrillek. Lehenik,

tradizio handikoa den marmitako lehiaketan parte hartuko dute, uztailaren 18an; bigarrenik, Talent Show proba egingo dute, 21ean, aurten lehenengoz; hirugarrenik, ohitura bilakaturiko piragua jaitsiera egingo dute Ibaizabal errekan zehar, 23an; eta, azkenik, herri kirolak egingo dituzte, uztailaren 25ean.

Zornotzako Gazteak taldeak herriko gazte kuadrillei jaieta-

rako luzatu dien proposamenen artean nobedadea da Talent Show proba. Gazteak azaldu dutenez, azken urteetan egin duten playback lehiaketaren ordean antolatu dute, hain zuzen, talentu lehiaketa. Uztailaren 21ean, 19:00etan, txosnagunean izango da hitzordua. “Diziplina ugari-koa” izango da, antolatzaileen berbetan, lehiaketa hori: “Bakoitzak egiten dakien hori era-

kutsiko du lehiaketa horretan: kantatu, dantzatu, instrumenturen bat jo...”, azaldu du Enara Lauzirika Zornotzako Gazteak taldeko kideak.

Jaiek irautean duten egunetan egiten dituzten proba guztiak batuta puntuaziorik altuena jasotzen duen kuadrilla izango

Hainbat ekintza biltzen dituen erronkekin, ‘challenge’ deitzen duten lehiaketa antolatu dute gazteek

da *challenge*aren irabazlea. Bestalde, proba bakoitza irabazten duen kuadrillak ere sari bat jasoko du. Azken urteetan, Zornotzako jatetxeren batean otordua egiteko aukera izan da saria.

Kuadrillen arteko ekitaldi horiek herriko gazteen arteko harremanak estutzeko helburuagaz antolatzen dituzte; urtero ehunka gazte biltzen dituen Kuadrillen Eguneko bazkaria horren lekuko. Aurten, uztailaren 17an egingo dute, eta 300 gazte batzea espero dute.


Uztailaren 27an, jaien azken egunean, karrozen desfilea egingo dute, eta jendea parte hartzerantz gonbidatu dute.



Piragua jaitsiera izango da ‘challenge’-ko probetako bat.



Azken urteetan, 300 lagun batu izan dira Kuadrillen Eguneko bazkarian. Beste horrenbeste espero dute aurten.



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



GARBIKETA



LOREZAINZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com

AZKARGI
GARBKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goietak, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk. PATXI
48200 DURANGO 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Endika Salazar | Bilbo, 1981 | Barbara Govan | Erroma, Italia, 1981 |

“Gure helburua ez da ikusleak akrobaziekin harritzea bakarrik”

Durangoko musika eskolako lorategian eskainiko dute, bihar, zirku garaikideko ‘Spazi...O’ ikuskizuna

> **ZIRKUA** Itsaso Esteban

Zelakoa izan da ‘Spazi...O’ ikuskizuna sortzeko burutu duzuen lan prozesua?

Endika Salazar: Bi prozesu izan dira. Batetik, ideia sortu, eta probak egiten hasi ginen unea dago. Eta, bestetik, auto istripu baten ondorioz, zazpi hilabeteko geldialdiaren ostean, Jauriaritzaren diru-laguntza jaso ondoren garatutako prozesua. Euskal Herrian, Frantzian, Katalunian eta Alemanian sortu dugu lana. Aukera eduki dugu, zuzendariategaz barik, hainbat profesionalen begiradekin aberasteko gure ikuskizuna.

Barbara Govan: Kanpoko begirada horiek batu ostean, bion artean sortu dugu ikuskizunaren arkitektura.

Zaila izan da hainbeste ikuspuntu uztartzea?

B.G.: Bai, buruhaustetik ere izan du apur bat prozesuak... [barrez] Zailena izan da eduki dugun material guztitik zein hartuko eta zein alboratuko genuen erabakitzea.

E.S.: Bai, ikuskizunak gure harremanari eta bizipenei buruz dihardu; oso lan naturalista eta oso benetakoa da *Spazi...O*.

Zenbat denbora eman duzue lan hau prestatzen?

B.G.: Elkarrekin lan egiten duela bi urte hasi ginen, kultura arloan krisia nabaritzen hasi ginean: ez geneukan lan asko, eta elkarregaz ikuskizun soil bat sortzea pentsatu genuen. Baina ideia handitzen handitzen joan zen, eta *Spazi...O* aterata da.

Zein da ikuskizunaren oinarrian dagoen ideia?

B.G.: Bilboko Azkuna zentroaren kanpoaldeko instalazio batek eman zigun ikuskizunerako behin betiko ideia: horma batek banatzen dituen aulki bik osatzen dute instalazioa. Geure burua obra horretan islatua ikusi genuen: aldi berean oso antzekoak eta oso desberdinak diren bi elementu elkarregaz, baina horma batek banatuta... Esan genuen: “Geu gara horiek”. Elkarrekin gaude, baina bakoitzak bere espazioa bilatzen du.

E.S.: Geuk horrela bizi dugu geure bikote harremana, eta uste dugunez ez garela bereziak, eta jende askori gauza bera gertatzen zaiola. Gaia zintzotasunez landu gura izan genuen, eta geure bizipen eta emozioetatik sortu dugu ikuskizuna.



Duela hiru urtetik Abadiñon bizi dira Barbara Govan eta Endika Salazar.

Zentzu guztietan izan da, beraz, sorkuntza lan aberasgarria...

E.S.: Ikaragarri aberasgarria izan da, eta oraindik ere horrela da. Askok esaten digute zaila izan behar dela bikote eta lan-kide izatea, eta, jakina, denean bezala, badaude une gaitzak ere. Baina hain da bizia, alde onak ikaragarri betegarriak dira.

Aukera nahikoa izan duzue ikuskizuna erakusteko?

E.S.: Hainbat jaialditan eskaini dugu, dagoeneko, bai. Baina egia da, ikusleek oso gustuko duten arren, programatzailerak

batzuei kosta egiten zaiela honelako lan bat programatzea. “Garaikideegia” dela esaten dute programatzailerak batzuek. Artistak garen aldetik, arriskuak hartzen ditugula sentitzen dugu, eta ikusten dugu programatzailerak batzuek segurura jotzen dutela beti. Edozelan ere, San Agustin kulturgunearen kasua ez da hori: oso programazio interesgarria osatu dute uztaileko, eta Arantza eta Maider beti daude laguntzeko prest.

B.G.: Egiten duguna zirku garaikidea da, eta ez dugu jendea entretenitzea bakarrik bilatzen.

Tatxan! egitea baino gehiago bilatzen dugu.

E.S.: Ikuskizun honen helburua ez da ikusleak gure akrobaziekin harritzea bakarrik, baizik eta zerbait kontatzea eta jendea zer edo zer sentiaraztea.

Leku askotan ibili ostean, Abadiñon bizi zarete orain, ezta?

E.S.: Bai, urte asko hemendik kanpo eman eta gero bueltatu nintzen etxera, Euskal Herrira, Barbara lagun nuela. Duela hiru urtetik bizi gara hemen. 5 urteko seme bat dugu, eta Zelaietan oso gustura bizi gara.

Enrike Renteria pintura lehiaketak hemezortzigarren aldia beteko du

Zornotza Arte eta Kultura Elkarteak (SACZ) antolatu du pintura lehiaketa



Zornotzako alkateak eta elkartearen ordezkariak SACZren egoitzan egin zuten lehiaketaren aurkezpena.

> **PINTURA**

Enrike Renteria pintura lehiaketaren hemezortzigarren edizioa egingo dute, domekan, uztailaren 12an, Zornotzan. Gainera, Zornotza Arte eta Kultura Elkarteak Joseba Fernandezek pintura lehiaketaren aurkezpenaz arduratuko du, egun horretan jakinaraziko dute nortzuk diren Zintzilik lehiaketaren saridunak –herriko balkoietan ipintzen dira lehiaketa horretako artelanak–.

Uztailaren 12an egingo duten kaleko pintura lehiaketan 40 partaide inguru espero dituztela azpimarratu zuten asteleheneko aurkezpenean. Herriguneko paisaiak euren koadroetan jasotzeko lanean ibiliko dira artista horiek, domekan. Andoni Agirrebeitia alkateak prentsaurrekoan azpimarratu zuenez, “jaien atarian, herriari kolorea eta giroa emango dio” beste urte

batez Enrike Renteria pintura lehiaketak.

Parte-hartzaileek, uztailaren 12an, 09:00etatik 10:00etara, Zelaieta zentroan zigitatuko behar dituzte euren obra egiteko erabiliko dituzten oihalak; eta lanak amaitu ostean, 16:00etatik 17:00etara bitarteko epea edukiko dute koadroak aurkezteko.

Zazpi lan sarituko dituzte lehiaketan; lehenengoak 500 euroko saria jasoko du, 400ekoa bigarrenak, 350ekoa hirugarrenak, eta 300 euroko sariak edukiko dituzte laugarrenak, bosgarrenak eta seigarrenak.

Bestalde, Zintzilik lehiaketari dagokionez, 28 margolan jaso dituzte aurten. Herriguneko balkoietan zintzilikatzen dituzte artistek margo lehiaketa horretan parte hartzeko bidalitako lanak, eta margolanak bidali dituzten artean lau sari banatuko ditu epaimahaiak.

Alonso eta Eskudero nagusi, Trikitilari Gazteen Txapelketan

Joan zen zapatuan, Elorrioko plazan jokatu zuten bigarren trikiti txapelketa



Txapelketan parte hartu zuten trikitilariak eta panderojoleak.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Julen Alonso zarauztarrak eta Alaitz Eskudero debarrak osaturiko bikoteak irabazi du Elo-

rrioko plazan jokatuak Trikitilari Gazteen Elorrioko II. Txapelketa. Joan zen zapatuan, uztailaren 4an, bikote horrek

jantzi zuen txapela, eta 250 euroko lehenengo saria jaso zuen. Iaz, Eneritz Aulesti panderojoleak lagunduta irabazi zuen

Alonsok, eta Eskudero lagun duela ere bikain moldatu da.

Andoni Oriesagasti eta Uxue Querejeta zumarragarrek jaso zuten bigarren saria, eta Eneko Arbeo azpeitiarrak eta Mireia Ibabe bergararrak hirugarrena. Aizarnazabalgo Naiara Mantzizidor eta Jugatz Oleaga izan ziren laugarrenak, Ainhoa Telletxea eta Martxel Larraza etxalartarrak bosgarrenak, eta Aizarnako Maite Txapartegi eta Zestoako Ane Zulaika seigarrenak.

Julen Alonsok eta Alaitz Eskudero jantzi dute txapela, eta 250 euroko sari nagusia jaso dute

20 urtera arteko trikitilari eta panderojoleek osaturiko bederatzik bikoteak parte hartu zuten Berrio-Otxoa eguneko saioan.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA 'TXOTXE'

Irakaslea



San Fermin

Uztailak 6, hedabideetan bi gai nagusi, Greziak emandako ezetza Troikari eta Nazioarteko Diru Funtsari, eta, nola ez, San Fermin jaien hasiera. Batek Europako egitura ekonomikoa hankaz gora jarri du, eta besteak Iruñeko karrikak. Bietan herria protagonista, eta, bietan ere haize berriak bultzatuta, egoera politiko, sozial, ekonomiko eta kultural ezberdin bat marrazteko prest.

Ahal izan duten mamu gehien plazaratzen saiatu dira aurreko asteetan hedabideak, baina azkenean ezin izan dute euren nahia bete. Herri biek, Eduardo Gleanok hainbat aldiz aipatu zuen bezala, "beldurraren kulturari" aurre egin diote, eta aurrean dugun errealtatea beste modu batean kudeatu nahi dutela aldarrikatu.

Urruti gelditzen dira urtarileko elurteak. Orduan, ekialdetik haize berriak zetozela aipatu genuen, eta, bultzada hura baliatuz, gurean ere aldaketen ordua iritsi zela idatzi ere bai. Toki batzuetan aldaketak bermatu dira, ez guk, edo behintzat nik nahiko nukeen beste, baina zerbait mugitzen ari dela ezin da ukatu. LOMCE legea, murrizketak soldatetan, %21eko BEZ kulturala... gainean ditugu oraindik, beraz, badugu zer egin eta aldatu.

Iruñean zein Atenasen jai giroa da nagusi, eta duda barik disfrutatzeko egunak dira hauek. Bidea ez da erraza izango, eta euren zerbitzurako dauden hedabideek mila trikimailu eta oztupo jarriko dituzte bidaia honek amaiera egokia izan ez dezan. Ez naiz ni sinismenduna, baina gaur San Fermin egingo diot otoitz, gure oinak zuzendu ditzan.

Gora San Fermin!

Durangaldeko fabriken irudiak Bilbao Arten ipini ditu ikusgai Iñigo Garatuk

Uztailaren 24ra arte egongo da 'Work spaces' Bilbon

> ARTEA

Work spaces izenburuko argazki eta eskultura bilduma ipini du Iñigo Garatu (Iurreta, 1990) artistak Bilbao Arte aretoan. Bilboko (Bizkaia) Urazurrutia kaleko 32. zenbakiko areto horretan, 17:30etik 20:30era egongo da Garaturen lana ikusgai. Uztailaren 3an zabaldu zuten erakusketa, eta 24ra arte egongo da bisitariarentzat zabalik.

Argazkiek eta eskulturek osatzen dute *Work spaces*; gure inguru hurbileko industria astuneko fabrikak dira Iurretako artista gazteak artelanetan islatu dituen elementuak, eta "bizi dugun testuinguru laborala" da bildumaren ardatza. Egun funtzionamenduan dauden fabrikak, eta baita bertan behera utzita dauden eraikinak ere, agertzen dira argazkietan.

Egilearen berbetan, "natura oparoak inguraturiko Durangaldeko fabrikak" dira argazki askotan protagonistak. Durangaldekoekin batera, Arratiako eta Ezkerraldeko fabrikak ere agertzen dira argazkietan.

Garatuk azaldu duenez, errealtate industrial eta sozial horri argazkiak egin dizkio, "gure memoriaren parte izan daitezen, dokumentu gisa eduki ditzagun; izan ere, fabrika horietako asko itxi edo eraitsi egin dituzte, eta beste batzuk eraldatu egin dituzte".

Argazkigintzan ez ezik, eskulturgintzan ere badabil Iñigo Garatu iurretarra, eta esparru horretako bere lanaren lagin bat ere erakusgai du *Work spaces* bilduman. Zuragaz eta marmolagaz egindako hainbat pieza daude Bilbao Arten.



Bizi dugun "testuinguru laborala" da Garaturen argazkien protagonista.



Iñigo Garatu (Iurreta, 1990).

uda kalean bizi 2015
san agustín kultur gunea kalean

Dikothomia
Spazi...0

Uztailak 11, larunbata
20:00 - Musika eskolako parkea

Uda honetan
PLATERUEN PLATERAK

Bariku eta zapatu iluntzeetan
20:00etatik 23:00etara

PLATERUENA

Razioak
Entsaladak
Etxeko pizzak
Postreak

Eriz Goiria | Zornotza, 1987 | Gernika futbol klubeko jokalaria, eskuin hegalekoa

“Gernikan, bertako jokalaria asko daude, eta horrek zaleekin hartu-eman berezia sortzen du”

Gernika futbol taldeagaz Bigarren B Mailarako igoera lortu du Eriz Goiria zornotzarrak; bere ibilbideko bigarren igoera da



> FUTBOLA Joseba Derteano
Oraindik gaztea bada ere, Eriz Goiriak talde asko ezagutu eta esperientzia asko pilatu ditu futboleant. Esaterako, Bigarren B Mailarako igoera bi bizi izan ditu; azkena, aurtun, Gernikagaz. Zaleen eta jokalarien artean hartu-eman berezia egon dela dio, eta playoffetan, Urbietako futbol zelaian, egon den giroa azpimarratu du.

Igoera sopsa bat izan da? Azken urteetan, Gernika playoffetik gertu ibili izan da, baina ez zuen sailkatzea lortzen. Aurtun jokalaria onak elkartu dira, eta talde ona eta batua osatu dugu. Lagun talde bat izan gara. Denboraldi hasieratik ikusi dugu playoffera sailkatzeko aukera genuela, eta, hori lortu ostean, igoera bihurtu zen helburu. Aurtun izan behar zuela sentitzen genuen.

Playoffetan, taldeak egoera zailei aurre egiteko ahalmena izan du. Bai. Lehenengo partidu biak taldearen sendotasunaren erakusgarri izan dira. Bietan lortu dugu aldapa gora zeuden kanpo-

raketei buelta ematea. Lehenengoan, Menorcan 1-0 galdu, eta, itzulikoan, 3-1 irabazi genuen. Ondoren, Extremaduran 2-0 galdu, eta oso emaitza txarra ekarri genuen. Bigarren gola azken minutuan sartu ziguten, eta kolpe gogorra izan zen. Etxean kontrako gertatu zen; guk berdindu genuen azken unean kanporaketa, eta, ondoren, luzapenean hirugarrena sartu genuen.

